

8.- LAP-AREN ANTOLAMENDURAKO ARAUAK

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Aplikazio-esparrua.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana, indarrean jartzen denetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparru osoan izango da aplikatzekeoa.

2. artikulua.- Indarraldi-baldintzak.

Plan honek indarraldi mugagabea du, berori aldi baterako programatu eta berrikusi edo aldatzearen kaltetan izan gabe.

Plan honetan jasotako zehaztapenen bat deuseztatu, indargabetu edo aldatzeak ez du gainerakoan baliozkotasunean eraginik izango, horietakoren bat, haiekiko erlazioa edo mendetasuna dela eta, aplikaezina suertatzen bada salbu.

Lau urtean behin, LAPa idatzi eta haren jarraipena egiteko eskumena duten Eusko Jaurlaritzako Sailek memoria bat landuko dute hura zein neurritaraino betetzen den eta lurraldearen zatiko eta arloko antolamenduan eta udal-mailako hiri-plangintzan zer eragina duen baloratzeko. Gainera, hala badagokio, antzematen diren desegokitzapenak zuzentzeko neurriak zehaztuko ditu. Memoria hori Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari aurkeztuko zaio.

3. artikulua.- LAPa berrikusi, aldatu eta eguneratzea.

- 1.- LAParen indarraldiaren zortzi urtera, Eusko Jaurlaritzak hura berrikusteko egokitasunari buruz erabakiko du. Berrikuspen hori, aipatutako epea baino lehen ere, ondoko egoerak sortuz gero egingo da:
 - Biztanleriari, enplegu-dinamikari edo jarduera ekonomikoetarako lurzoruari buruz LAPean aurreikusitako hipotesiak nabarmen aldatzeak ezarritako antolamendu-irizpide orokorrak aldatzera behartzen duenean.

- LAAak aldatzearen edo Lurraldearen Zatiko Planen bat onartzearen ondorioz, Lurraldea Antolatzeke Eredua nabarmen aldatzea ekartzen duten zehaztapenak ezartzen direnean.
 - Hasiera batean aurreikusi gabeko garapenen edo jarraibideen bitartez LAParen edukiak zabaltzeko beharra edo komenigarritasuna agerikoa denean.
 - Bestelako egoerak direla-eta, Eusko Jaurlaritzak arrazoituz hala erabakitzen duenean.
- 2.- LAParen aldaketatzat, aurreko ataleko berrikuspen-suposizioetan jasotzen ez diren haren dokumentazioaren edo zehaztapenen onar daitekeen edozein aldaketa ulertzen da, haren osotasunean edo multzoan eraginik ez badu, Lurraldea Antolatzeke Ereduan eragin puntuala izateagatik.
- Aldaketek interes orokorreko arrazoietan oinarritu beharko dute eta euren edukia eta hedadura zehatz-mehatz deskribatzea eskatuko dute, berariazko justifikazioaz gain.
- 3.- Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren bitartez, LAP dokumentuaren informazio-baseak, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren arazoari buruzko datu-banku gisa, aldizka eguneratzea bermatuko du.

4. artikulua.- Plana interpretatzea.

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Eta Saltoki Handiak Sortzeko Lurraldearen Arloko Planean jasotako zehaztapenak interpretatzea Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari dagokio.

II. KAPITULUA.- JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA ARAUTZEA

5. artikulua.- Planaren proposamenen laburpena.

Planak planteatutako zehaztapenen zerrenda sistematizatua, EAE osoan jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren hiri-plangintzaren eta lurralde-banaketaren ereduari buruzko proposamen orokorrak antolatzeko irizpide eta helburu orokorrak alde batera utzita, honako hau da:

- a) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa (5.2.)
- b) Lurzoruaren lehentasunezko kokapenerako udal-kategoriazioa (5.4.1.)
- c) Sustapen-politikak (5.4.2.)
- d) Lurzoruaren kuantifikazio orokorra (5.5.)
- e) Plangintza berrikusteko eta aldatzeko prozesuak (5.6.2.)
- f) Araudi-sistematizazioa (5.6.3.)
- g) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak (6.3.)
- h) Saltoki handien hirigintza-arloko arautzea (7.2.)

6. artikulua.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Administrazioaren instantzia desberdinek udalen arteko lankidetz-formula berriak eta jarduera ekonomikorako lurzoruaren eskualde-kudeaketakoak erabakitzeko asmoz, Lurraldearen Zatiko Planak onartu artean, Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapen lotesle iragankor gisa, hauxe xedatzen da: jarduera ekonomikoetarako lurzoruen kokapen orokorra, lurzoruok eskualde-mailan kudeatzeko estrategiak eta lurzoru publiko berrien sustapena 5.2. kapituluaren azalduetako lurralde-egituraren arabera arautzea.

7. artikulua.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren lehentasunezko kokapenerako udal-kategoriazioa.

1. Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapen lotesle gisa eta, dagokion LZPa onartu artean, iragankor gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren lehentasunezko kokapena arautzeko, EAEko udalerrriak kategoriatan sailkatzea xedatzen da.

Hiru kategoria - "**lehentasunezko interesekoak**", "**hazkunde motelekoak**" eta "**garapen txikikoak**"- mugatu dira. EAEko udalerrri guztiak kategoria horiei atxikita daude eta horien gainean ezartzen dira jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolatzeko politika orokorrak ([ikus 5.4. mapa](#)).

- a) "**Lehentasunezko interesa**" duten udalerrietarako, dagokien eskualde-egiturarako LZParen lurralde-ereduari jarraituz, jarduera ekonomikorako lurzoruen hirigintza-arloko antolamendu, kudeaketa sustapeneko politika ezartzen da.
 - Okupatutako lurzoru finkatuak hobetzeko oinarritzko politika.
 - Zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzeko plan berezia, enpresak lekualdatzeko eta hutsik dauden espazioak jarduera berrietarako berreskuratzeko erraztasunak emanez.
 - Industria-kalifikazioa duten okupatu gabeko lurzoruak garatzeko plan berezia, egungo poligonoak bultzatuz, desblokeatuz eta sustatuz.
 - Planean interes estrategiko orokorrekotzat hartutako guneetan jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzeko politika berezia.

- b) **"Hazkunde moteleko"** udalerrientzako oinarrizko politika bat ezartzen da, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen kudeaketari eta jadanik badauden eremuak eta ezarpenak finkatzeari dagokionez, egungo urbanizazioak akabatu eta hobetzeko ekintzen bidez. Udalerrri hauen gainean ez da aurreikusten hazkundeko edo ezarpen berriko eragiketa publiko garrantzitsurik, eskualde-intereseko poligono txikiak bultzatuz lurzuak sustatzeko estrategien ondoriozkoak salbuetsita. Zehazki, xedapen orokor gisa ezartzen da, udalerrri guztien hiri-plangintzan, jarduera ekonomikoetarako hutsik dauden lurzoruen azalera gehienez 10 ha-koa izatea isurialde kantauriarrean eta 15 ha-koa isurialde mediterraniarrean, betiere hartzeko ahalmen nahikoa baldin badago, ingurune naturalaren gainean eragin nabarmenik sortu gabe eta horien antolamendua dagokien eskualde-egiturarako LZPan aurreikusitako lurralde-ereduarekin bat etorritz.
- c) **"Garapen txikiko"** udalerrientzat, jarduera ekonomikoak ezartzera zuzendutako lurzoruaren dimentsionamendua hiri-plangintzan mugatzea ezartzen da. Kategoria honen barruan oso mota, garrantzi demografiko eta hiri-garapen desberdinetako udalerrriak biltzen direnez, jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruaren dimentsionamendua mugatzeko irizpidea ez da kasu guztietan zorrotasun berarekin aplikatu behar. Gutxieneko hiri-garapena duten eta landa-ingurunean bete-betean kokatuta dauden udalerrri batzuentzat ez du zentzurik berriaz industrialak izango diren eraikinak edo jarduerak ezartzea. Beste udalerrri batzuetan, ordea, toki-esparruko lantegiak eta enpresa txikiak barne hartzeko egokiak izango diren eremu txikiak onartu ahal izango dira, hutsik dagoen lurzorurako 3 ha-ko gainazal hedaturako azalerarekin gehienez ere, betiere hartzeko ahalmen nahikoa baldin badago, ingurune naturalaren gainean eragin nabarmenik sortu gabe (LAAen 9. kapituluko 6.5 puntua) eta horien antolamendua dagokien eskualde-egiturarako LZPan aurreikusitako lurralde-ereduarekin bat etorritz. Lantegiak eta enpresa txikiak ezartzera zuzendutako poligono txiki horiek hiriguneei lotuta egon behar dute, hiriguneeen hirigintza-egituraren osagarri gisa, ez ordea udal-mugapeari dagokion lurraldearen landagune isolatuetan. Eskualde-mailan ekonomia sustatzeko eragiketetan esku-hartze publikoak barne hartu ahal izateko lurzoru-garapen berriak baimenduko dira.

2. Saillapen hori LZPak aldatu ahal izango du, dagokion eskualde-egituraren lurralde-ereduak dituen antolamendu-beharrak kontuan izanda.

8. artikulua.- Sustapen-politikak.

LAParen zehaztapen gisa, gainbehera ekonomikoan eta/edo demografikoan dauden zonatzat hartzen diren lurraldeko puntu urrakorretan, industria-ehunaren birmoldaketako zonetan edota komunikabideekiko kokapen eszentrikoko zonetan ekintza dinamizatzaile eta sustatzaile bereziak administrazioetatik programatzea xedatzen da.

Administrazioek sustatu beharreko jarduera ekonomikoa berriak lehenasunez ezartzeko hiru motatako edo mailatako sustapen-eragiketak finkatzen dira:

- Ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza leheneratzeko sustapena.
- Industria-enpleguan defizita duten eskualde-buruak dinamizatzeko sustapena.
- Landa-inguruetan industria-jarduera bultzatzeko sustapena.

5.4.2. puntuan, Planak proposatutako "sustapen-eremu" zehatzak jasotzen dira ([ikus 5.4 mapa](#)).

9. artikulua.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kuantifikazioa.

1. Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapen lotesle gisa xedatzen da eskualde-egitura edo azpieskualde bakoitzeko lurraldea antolatzeke tresnetan ezarri beharreko jarduera ekonomikoetarako lurzorua eskaintza osotasunean dimentsionatzea.

Dimentsionatutako azalera gauza izan beharko du Planean aurreikusitako lurzoru publikoa sortzeko eragiketa berriak hartzeko eta 16 urteko epean, Planaren denbora-horizonte gisa, aurreikus daitezkeen ekimen pribatuko sustapen guztiak ezartzeko, behar adinako eskaintzaren bidez, aurreikus daitezkeen eskariri erantzutearren.

Planaren 5.5 puntuan, taulan zehazki, espazio-aurreikuspen hauen kalkulua finkatzen da, planteatutako eskaintzaren behar adinako aniztasuna eta malgutasuna bermatuko duten eta lurzoru-eskari mota bakoitzerako arrazoizko soluzio alternatiboak eskainiko dituzten putzertarioak kontuan hartuta.

Era berean, dimentsionamendu honen barruan, gaur egun dauden saltoki handiekin okupatutako lurzoruak eta, hala badagokio, etorkizunean saltoki berriak ezartzeko azalera libreak zenbatzen dira.

2. Lurraldearen Zatiko Planek eta, horren ordez, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, behin betiko onarpenaren aurreko txostenaren bitartez, dimentsionamendu-jarraibide horiek lekualdatuko dituzte, banan-banan, eskualde-egitura edo azpieskualde-egitura bakoitza osatzen duten udalerrien plangintza orokorretara, eskualde-egitura bakoitzean eta dagokion lurralde-esparruan 16 urteko aldirako aurreikusitako espazio-erreserben bolumen osoa denboran eta espazioan orekaz banatuz.

Hala, eskaintza eta eskaeraren arteko maiorazio logikoa eta, udal-plangintzan, bata eta bestearen arteko hirukoitzeko erlazioa erreparatuz gero, eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua guztizko dimentsionamendua 16 urteko aldirako kontuan hartuta, 8 urterako ezarri beharreko dimentsionamendua, udal-planen indarraldi gisa, guztizkoaren hiru laurdenekoa izango da.

10. artikulua.- Plangintza berrikusi eta aldatzeko prozesuak

1. LAParen zehaztapen lotesle gisa Udal-plangintza orokorra aldatzeko prozesuak arautzeko estrategia sistematizatua aukeratzea xedatzen da, bai udal-plangintza orokorraren berrikuspen osoaren bidez bai aldaketa puntualaren bitartez egiten direnean, baldin eta proposatutako aldaketek "industria-kalifikazioa", "jarduera ekonomikoetarakoa" edo beste edozein adiera baliokide duten lurzoruetan eragina badute.

2. Hala udal-plangintza orokorra berrikusteko prozesuetarako nola aldaketa puntualak egiteko espedienteetarako, dagokion Lurraldearen Zatiko Planak bestelakorik xedatu ezean, "industria-kalifikazioa", "jarduera ekonomikoetarakoa" edo beste edozein adiera baliokide duten lurzoruaren hirigintza-arautzeari dagokionez 5.6.2. puntuan azaldutako honako alderdi hauek betetzea xedatzen da:

- Gaur egun "industriarako" edo "jarduera ekonomikoetarako" kalifikatutako lurzoruak "bizitegirako" edo antzeko erabilerarako birkalifikatzeko prozesuak onartzea soilik aldez aurretik eta dokumentu egokien bidez justifikatzen denean ezintasun teknikoa, ekonomikoa edo hirigintza-arlokoa dagoela hautabidezko hirigintza-eragiketa bat planteatzeko, lurzoru horiek jarduera ekonomiko berriak hartzeko eremu gisa birmoldatzeko, dagokion aparkaleku-zuzkidurarekin hornituta. Jarduera ekonomiko berrien konfigurazio tipologikoak bateragarria izan beharko du hiri-ehunaren barruan izango duten kokapen zehatzarekin.
- "Industria-lurzoruaren" edo "jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren" hirigintza-kalifikazioa aldatu eta "bizitegi-lurzoru" edo "zuzkidura-lurzoru" gisa kalifikatzeko prozesu berriak tramitatzeke, betiere, aldi berean udalerrian edo eskualde-egituraren hiri-plangintzari "jarduera ekonomikoetarako" lurzoru berriaren azalera baliokidea gehitzeko eskatzea.

- Azkenik, lurzoru-eskuragarritasun txikiagoa duten Kantauriar erlaitzeko eskualde-egituretan (bereziki Debarrenean, Debagoiengan, Urola-Kostan, Goierrin eta Toloserrin), industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko burutzen diren prozesuak lehenetsuz jarduera ekonomikoetarako eta zuzkidura edo bizitegi gisako eraikuntzarako eragiketa mistoetarantz bideratuko dira.

11. artikulua.- Araudi-sistematizazioa.

LAParen zehaztapan lotesle gisa, EAE osoan jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko lurzoru-sektore berriak garatzeko nahitaez bete beharreko ratio orokor hauek finkatzea xedatzen da:

- a) Sektorre baten gehieneko eraikuntza-aprobetxamendua: %65eko oinplanoko gehieneko okupazio-azalera eta %95eko gehieneko sabai-azalera eraikigarria, sektorearen zatiko plangintzan lursail eraikigarri, bide-sareko elementu edo zuzkidura-zona gisa konfiguratutako sektoreko plataforma erabilgarri nabarmen horizontalen multzoaren azalera garbia erreferentziatzen hartuta, behin lur-mugimenduak egin ondoren eta, ondorioz, lur-erazketen eta lubeten azalera kenduta.
- b) Sektorre baten interes publiko eta sozialeko zerbitzu-erakundeetarako eraikuntzaren gutxienezko zuzkidura: gutxienez sabai-azalera eraikigarriaren %3 enpresen zerbitzu-erakundeetarako erabiliko da (bulegoak, ostalaritza, enpresa laguntzaileak, zerbitzu komunak eta abar); titulartasun publiko zein pribatukoa izan daiteke.
- c) Sektorre baten gutxienezko aparkaleku-zuzkidura: aparkaleku-plaza bat eraikitako 100 m² sabaiko; gutxienez plazaen %20 sarbide publikoko bide-sarean ezarriko dira.
- d) Gutxienez sektorearen azalera gordin osoaren %15 erreserbatzea espazio libreen eta ekipamenduen toki-zuzkidura publikoetarako.

12. artikulua.- Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak.

1. Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak, Lurraldearen Zatik Planak onartu artean Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapan lotesle iragankor gisa, udal-mailako hiri-plangintzako tresnek jaso behar dituzte dagozkion lurzoru-zuzkiduretan, eta lurzoru-zuzkidura horiek desjabetze-sistemaren bidez susta daitezkeen interes publikoko poligonotzat hartuko dira.

Kokapenari, dimentsionamenduari eta programazioari buruzko alderdi garrantzitsuak hirigintza-arloan definitzeko, alde aurretik, alternatibak, bideragarritasun ekonomiko eta eskari-proiektzioak ebaluatzeko azterlanak egin behar direnean, eragiketa horiek geroago barne hartu ahal izango dira hiri-plangintzan. Halakoetan, etorkizunean eragiketa horietakoren bat barne har dezaketen lurralde-esparruak lurzoru urbanizazioneko erreserba gisa mantenduko dira.

2. Planen proposatutako esku-hartze publikoko eragiketen multzoa ondoko espezializazio tipologikoaren arabera egituratzen da (6.2. puntua):

- **"Jarduera berritzaileen parkeen sarea"**
 - **Teknologi Elkartegiak.**
Zamudio, Miñao eta Miramongo Teknologi Elkartegiak. Hiruek zabaltze-prozesu aurreratua dute.
 - **Enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratu-erakundeetarako parkeak.**

Industria-zerbitzu teknikoak eta hirugarren sektoreko industria-jarduerak hartuko dituzten poligonoak.

Kasu batzuetan dagoeneko abian diren eragiketak dira (esaterako, Garaia Arrasaten), eta beste batzuetan sustapen-ekimen berriak.

- **"Garraiorako zerbitzu-plataformen sarea"**
 - **Plataforma logistikoak eta modalitate artekoak.**
Komunikabideen sare orokorreko modalitate arteko gunen nagusietan garraioaren zerbitzurako azalera berriak.
 - **Salgaien garraio eta banaketako jardueretarako poligonoak.**
Garraioaren sektoreari lotzen zaizkion jarduera-eremuak, biltegitratzeko, izakinak gordetzeko eta kargak hausteko esparruak, salgaiak banatzeko gunek eta abar.
 - **Garraiorako zerbitzu-zentroak.**
Errepidean zeharreko garraioaren sektoreari zerbitzu egingo dieten berriazko instalazioak jasotzeko espezializatuta dauden espazio txikiagoko eremuak.
- **"Jarduera ekonomiko orokorreko poligonoen sarea"**
 - **Eskualde-mailako poligonoak.**
Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde desberdinetako kokagune estrategikoetan lurzoru publikoko eskaintza sortzeko eragiketak.
Poligonoaren kokapen zehatzaz gaindiko eskualde-mailako kudeaketa-esparrua. Ezarpenaren sinergiak hobetzeko eta eskualde-egitura edo azpieskualde jakin bateko udalerrietarako lurzoria eskaintzeko udalaz gaindiko dimentsioa izango du.
 - **Udalaz gaindiko interesa duten industria-eragiketa zehatzak.**
Eskala handiko eragiketa orokor bat gauzatzea ahalbide dezakeen lurzorurik ez duten zenbait eskualde-egituretan edo lurzoru-eskaintza zehatza duten eskualdeetan, tamaina txikiagoko industria-poligonoen sustapen publikoko eragiketa zehatzak planteatzen dira eskualde-buruetako kokagune estrategikoetan.
- **"Erreserba estrategikoen sarea"**
 - **Erreserba estrategikoko esparruak.**
Aukerako eragiketak jasotzeko lurzoria behar duten enpresa handiak finkatu ahal izateko lurzoru egokiko ondare publikoko erreserbak.

3. Planean proposatutako berriazko eragiketa guztiak haren 6.3. puntuan zehazten dira, eta, bereziki eskualde-egitura bakoitzerako, araudi zehaztuari eta proposamenen laburpen zehatuari buruzko antolamendu-arau hauen III. kapituluan ([ikus 6.3.](#) eta [8.3. mapak](#)).

III. KAPITULUA.- SALTOKI HANDIEN ARAUTZEA

13. artikulua.- Saltoki handia. Definizioa eta sailkapena.

- 1.- Araudi honen ondorioetarako, Saltoki Handizat edo Astialdiko eta Zerbitzuetako Zentrotzat hartzen da merkataritzako, astialdiko eta ostalaritzako zerbitzuen hainbat ekipamendu (elikagai-unitate handia, merkataritza-galeria, gaikako denda handiak, multizinema-konplexua, astialdiko zentroak, hotelak, jatetxeak eta kafetegiak, gasolina-zerbitzugunea eta abar) kontzentratuta metatzen dituen hirugarren sektoreko eraikuntzako hirigintza-ezarpen oro, baldin eta orokorrean, enpresa, establezimendu edo

jarduera desberdinetan zatikatzen dela ere, jarraian adierazitako hirigintza-magnitude orokorretara iristen bada:

- Plataforma zelaitu, libre eta eraikiaren azalera garbia: 15.000 m².
- Eraiki daitekeen sabai-azalera: 5.000 m².

2.- Saltoki handiak hiru multzo tipologiko handitan banatzen dira, kasuan kasuko eraikuntza-ezaugarriak eta kokalekua kontuan izanda:

- Hiriguneetako erdialdean kokatutako eraikuntza itxiko saltokiak.
- Eraikuntza irekiko saltokiak, hiri-zabalguneetan kokatutakoak, eremu zaharkituak birmoldatzearen edota espazio huts interstizialak edo zuzkidurarako lursailak okupatzearen ondorioz.
- Herriguneen kanpoaldean kokatutako saltoki zabalak.

14. artikulua.- Saltoki handien lurralde-mailako arautzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen diren Saltoki, Aisia eta Zerbitzu Zentro eta Hirugarren Sektoreko Plataforma handiak jarraian adierazitako araudiaren arabera arautuko dira:

1.- Eraikuntza itxiko saltoki handiak hirigintzako udal-plangintzaren arabera arautuko dira.

2.- Beste bi eredu tipologiko baliokideetako batean barne hartutako saltoki handietarako, zatiko planari edo, hala badagokio, plan bereziari dagokion dokumentazioaren bidez justifikatu beharko da jarduera ekonomikoetarako lurzoruko, edo hirugarren sektoreko lurzoruko, edo merkataritza-lurzoruko, edo zerbitzuetarako lurzoruko sektore bakoitza saltoki handi bat barne har dezakeen esparrua dela, eta plan horretako erabilera-erregimen xehatua ondoko arauetara egokitzen dela:

- Bere kokapena Lurraldearen Arloko Plan honen saltoki handien lurralde-arautzeari arautzeari buruzko mapan ([7.2 mapa](#)) generikoki definitutako esparru estrategikoetara mugatuko da eta, hala badagokio, eskualde-egitura bakoitzerako dagokion Lurraldearen Zatiko Planean zehaztasun geografiko handiagoarekin ezartzen diren irizpideetara.

Lurraldearen zatiko planek berariazko zehaztapenak ezarri ahal izango dituzte saltokien kokapenari buruz. Horretarako, ekipamendu-mota horiek barne hartu ahal izateko zona egokiak mugatuko dira eta, osagarri gisa, mugak ezarri ahal izango zaizkie beste hirigintza-erabilera batzuetarako gordetako esparruei edo beren balio naturalengatik bereziki babestuta dauden eremuei.

- Saltoki handien kokapena eta dimentsionamendua erabakitzeke, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien sailkapen bat ezartzen da hainbat alderdi kontuan hartuta: komunikabideen sareekiko kokapen estrategikoa, biztanleriaren pisua, espazio-erabilgarritasuna eta mota honetako zentroak hartzeko hirigintza-egokitasuna; ondoko kategoria hauen arabera:
 - A kategoria: Zentraltasun handieneko udalerrriak
 - B kategoria: Eskualde-zentraltasuneko udalerrriak
 - C kategoria: Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako udalerrriak.

Hiru kategorietako bakoitzari atxikitako udalerriak LAParen 7.2. kapituluaren jasotako zerrendan eta mapan definitzen dira eta, eskualde-egitura bakoitzerako zehazki, araudi zehaztuari buruzko 8.3. kapituluaren.

c) Saltoki berrien gehienezko dimentsionamendua kasuan-kasuan kokatzen den udalerraren arabera araututa geratzen da, honako parametro hauekin bat etorritik:

- A kategoria :Zentraltasun handieneko udalerriak.
 - Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 75.000 m².
 - Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 25.000 m²
- B kategoria :Eskualde-zentraltasuneko udalerriak.
 - Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 40.000 m²
 - Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 13.000 m²
- C kategoria :Gainerako udalerriak.
 - Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 15.000 m².
 - Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 5.000 m²

Plataforma zelaituaren azalera garbi gisa, eraiki daitekeen lurzoruz gain, aparkalekuak, sarbideen barne-sarea eta zerbitzu-espazio eta perimetrotako berdegune guztiak zenbatuko dira. Esparru gordinari dagokionez, lur-erazketek, lubetek eta ibilgu publikoek, hala badagokio, okupatutako zonak besterik ez dira salbuetsiko.

Eraiki daitekeen sabai-azalera gisa, sotoko solairuan, behe-solairuan eta goiko solairuetan eraikitako azalera guztiak zenbatuko dira, hauek bereziki salmenta-azalerari nahiz beste edozein erabilera osagarri atxikita daudela ere; aparkalekurako azalera salbuetsita, ez baitira zenbatzen.

- d) Saltokiaren gehienezko dimentsionamenduari buruzko muga hauek, halaber, jardura ekonomikoetarako poligono batean edo plataforma logistikoko batean instalatu litezkeen merkataritza eta astialdiko establezimendu txikiagoen edo marka desberdinetakoen batura orokorrari aplikatuko zaizkio.
- e) Saltoki batekin bateragarriak diren erabileren eta jardueren hiri-antolamendu zuzena egiteko, petrolio-produktuak hornitzeko instalazioak aurreko artikulatuaren 2. puntuko b) eta c) ataletan definitutako saltokietan soilik egon daitezkeela xedatzen da.

Gainerako kasuetan, instalazio horiek, bai espazio-urritasunagatik, bai erabileren bateraezintasunagatik, bai bide-trafikoaren berezko disfuncionaltasunengatik, ezin izango dira ezarri.

- f) Saltoki handiak ezarri edo, hala badagokio, zabaldu ahal izateko, hirigintza-funtzionamendu egokia ziurtatzearen, eraikitako sabaiko 100 m² bakoitzeko 5 aparkaleku-plazako zuzkidura bermatu beharko da, aparkalekurako espaziora zuzendutako sabai eraikia zenbatu gabe.

3.- LAParen zehaztapen lotesle gisa, ondokoa xedatzen da: dagokion dokumentazioan (jardura ekonomikoetarako lurzoru, edo hirugarren sektoreko lurzoru, edo merkataritza-lurzoru, edo zerbitzuetarako lurzoru sektore bakoitzaren zatiko plana edo, hala badagokio, plan berezia), saltoki handi bat barne har dezakeen sektorea izatea eta zatiko plan horretan aurreikusitako erabilera-erregimen xehatua saltoki handietarako LAParen araudira egokitzen dela berariaz justifikatzea.

IV. KAPITULUA.- ARAUDI ZEHAZTUA. ESKUALDE-EGITUREN ARABERA ZEHAZTUTAKO PROPOSAMENEN LABURPENA

15. artikulua.- Araba Erdialdeko Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Arabako Erdialdeko Eskualde Egiturako biztanleria osoa %5 hazi da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 6,3 puntu gehiago, eta biztanleria aktiboa %27, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 13 puntu gehiago.

Gaur egun, Arabako Erdialdeko Eskualde Egiturak 5.000 industria-enpleguko superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko (2.000 enplegu Gasteizko azpieskualdean, 2.000 enplegu Gorbeia Inguruetan eta 1.000 enplegu Arabako Haranetan), eta 250 enpleguko defizita Arabako Mendialdean. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indize orokorra hektareako 22 enplegukoa da. Oro har lurzoru libre kalifikatuaren eskaintza behar adinakoa da, baina antzematen den osagai exogeno garrantzitsuko eskari handia ikusita, komenigarria izan liteke kudeatutako lurzoru berriak prestatu beharra aurreikustea.

Arabako Erdialdeko Eskualde Egiturako azpieskualde bakoitzerako politika bereizia gauzatuko da:

- Gasteizko azpieskualdean lurzoru berrien garapenari eusteko politika finkatuko da, ezarpenak Agurain-Araia eta Langraiz-Erribabellosa kanpoko ardatzetarantz deszentraliza daitezten, potentzialtasun estrategiko bikaina baitute jarduera-instalazio berriak eta garraioaren zerbitzurako plataforma logistikoak hartzeko.

Gasteizko azpieskualdean aukeratu egin behar dira garapenak, lehenetsua emanaz hirugarren sektoreko jardueren eta teknologia berrien ezarpenari eta aireportuaren ingurua bultzatuz jarduera aurreratu eta logistiko berriak ezartzeko eremu estrategiko gisa.

- Arabako Haranetako eta Arabako Lautadako azpieskualdeak dimentsio handiko lursailen eskari exogeno berriak (plataforma logistikoak, trukatzaila estrategikoak, industria-instalazio handiak, biltegi-zerbitzuak, espazio-erreserbak eta abar) hartzeko bokazioa duten esparru izango dira.
- Gorbeia Inguruetako azpieskualdeak garapen-erritmoa moteldu beharko du. Horrela, eskari endogenoa eta Debagoienetik hedatutako enpresa-soberakinetako batzuk besterik ez hartzea planteatzen da.
- Arabako Mendialdeko azpieskualderako bigarren sektorearen garapena sustatzeko estrategia ezarriko da. Ildo horretan, industria-jardueraren jatorri izango diren eta demografia-gainbeherako prozesua geldiaraztea ahalbidetuko duten hainbat industrialde sustatzea planteatzen da.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Araba Erdialdeko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren ondoko sailkapena ezarriko da:

- Arabako Lautada
Dulantzi, Asparren, Barrundia, Burgelu, Iruraitz-Gauna, Agurain, Donemiliaga eta Zalduondo.
- Gasteizko azpieskualdea
Gasteiz, Oka-Iruña, Zigoitiko udalerriko Hegoaldea, Etxabarri-Dibinari dagokiona, eta Arratzu-Ubarrundiako Hegoaldea, Durana eta Mendibili dagokiena.
- Gorbeia Inguruak
Urkabustaiz, Zuia, Zigoitia (Etxabarri-Dibinako ingurua izan ezik), Legutio, Arratzu-Ubarrundia (Durana eta Mendibilgo ingurua izan ezik), Otxandio, Ubide eta Aramaioko udalerraren mugaketaren zatia.
- Arabako Haranak
Aramiñon, Beranturi, Koartango, Lantaron, Erribera Goitia, Erribera Beitia, Gesaltza, Gaubea eta Zanbrana.
- Arabako Mendialdea
Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Lagran, Urizaharra eta Harana.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Araba Erdialdeko Eskualde Egiturako udalerriak kategoria hauetan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Aramiñon, Asparren, Beranturi, Oka-Iruña, Lantaron, Legutio, Erribera Beitia, Donemiliaga, Agurain, Gasteiz
- Hazkunde moteleko udalerriak
Dulantzi, Arraia-Maeztu, Arratzu-Ubarrundia, Kanpezu, Burgelu, Otxandio, Erribera Goitia, Gaubea, Zigoitia
- Garapen txikiko udalerriak
Barrundia, Bernedo, Iruraitz-Gauna, Koartango, Lagran, Urizaharra, Gesaltza, Ubide, Urkabustaiz, Harana, Zalduondo, Zanbrana, Zuia

d) Sustapen-eremuak

Landa-inguruetan industria-jarduera bultzatzeko Araba Erdialdeko Eskualde Egituran proposatutako "sustapen-eremuak":

- Industrialdea Tuesta-Espejon (Gaubea). Arabako Haranak.
- Industrialdea Subilana-Anuzitan (Erribera Goitia). Arabako Haranak.
- Industrialdea Kanpezun. Arabako Mendialdea.
- Industrialdea Maeztun (Arraia-Maeztu). Arabako Mendialdea.

e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Araba Erdialdeko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak garatuko dira:

- *Arabako Lautada*
 - Aguraingo eskualde-mailako poligono berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 50 ha.
 - Asparrena-Donemiliagako erreserba estrategikoa
Asparrena-Donemiliagako erreserba estrategikoa erreserba estrategikoko esparrutzat hartzea.
- *Gasteiz*
 - Miñaoko Teknologi Elkartegia
Teknologi Elkartegia sendotzea eta garatzea.
 - Forondako aireportuaren inguruan Enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parkeak.
Kokapen estrategikoetan, hala nola Arangizen, N-622 errepidearen eta aireportuaren artean, eta Eztarronan, A-3302 errepidearen eta Aireportuaren artean, enpresa-zerbitzuetarako eta hirugarren sektoreko jardueretarako zerbitzu-eremuak sortzea. 50 ha.
 - Jundizko plataforma logistikoa eta modalitate artekoa.
Gaur egun dagoen plataforma sendotzea eta trenbide-sare berrian barne hartzea.
 - Jundizko salgaien garraio eta banaketako jardueretarako poligonoa.
Jundizen dagoen Gasteizko garraio-zentroaren instalazioak sendotzea eta garatzea.
 - Jundizko eskualde-mailako poligonoa.
Gaur egun dagoen poligonoa sendotzea, garatzea eta zabaltzea. 100 ha zabaltzea.
 - Langraizko eskualde-mailako poligono berria.
Subillabide poligonoa garatzea. 100 ha.
- *Gorbeia Inguruak*
 - Legutioko eskualde-mailako poligono berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 50 ha. Kokapen estrategikotzat N-240 errepidearen eta A-627 errepidearen arteko esparrua hartu da, esparru hau Gojaingo esparruaren zabalpenerako alternatiba osagarri bihurtzen da.
- *Arabako Haranak*
 - Araba Hegoaldeko zentro logistikoa.
Modalitate arteko plataforma logistikoa, garraioaren jardueretarako poligonoa eta eskualde mailako poligonoa elkargunean, hau da, Miranda de Ebroren iparraldean, A-1 eta A-68 autopisten, N-1 eta N-124 errepideen eta Madril-Irun eta Bilbo-Bartzelona trenbideen artean.
Erribera Beitia. Aramiñon eta Beranturi. 150/200 ha.

- Lantarongo erreserba estrategikoa.
Lantarongo poligonoa erreserba estrategikoko esparrutzat hartzea.
- Gaubeako eskualde-mailako Industrialdea
Tuesta poligonoa garatzea Espejon. Gaubea. 5/10 ha.
- Erribera Goitiko eskualde-mailako Industrialde berria.
Subilana eta Anuzita artean poligono berria, A-2622 errepidean eta A-68 autobidearen lotunetik hurbil. 5/10 ha.
- *Arabako Mendialdea*
 - Kanpezuko eskualde-mailako Industrialdea
Aurreikusitako poligonoaren 1. fasea garatzea. 5/10 ha.
 - Maeztuko eskualde-mailako Industrialde berria
5/10 ha.

f) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

A. Gaur egun jarduera ekonomikoetarako instalazioek okupatutako lurzoruen azalera.

- Arabako Lautada:	254 ha
- Gasteizko azpieskualdea:	1.449 ha
- Gorbeia Inguruak:	255 ha
- Arabako Haranak:	185 ha
- Arabako Mendialdea:	21 ha
- Guztizko partziala A:	2.164 ha

B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Lurzoru libre guztiak eskaintza bideragarritzat hartzen dira.

- Arabako Lautada:	173 ha
- Gasteizko azpieskualdea:	1.136 ha
- Gorbeia Inguruak:	71 ha
- Arabako Haranak:	98 ha
- Arabako Mendialdea:	47 ha
- Guztizko partziala B:	1.525 ha

C. Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.

- Arabako Haranak:	200/300 ha
- Guztizko partziala C:	200/300 ha

D. Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera.

- Arabako Lautada:	100/200 ha
- Gasteizko azpieskualdea:	100/200 ha
- Gorbeia Inguruak:	50/100 ha
- Arabako Haranak:	100/200 ha
- Arabako Mendialdea:	10/20 ha
- Guztizko partziala D:	360/720 ha

- Kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)

- Arabako Lautada:	530/610 ha
- Gasteizko azpieskualdea:	2.700/2.780 ha
- Gorbeia Inguruak:	380/420 ha
- Arabako Haranak:	600/750 ha
- Arabako Mendialdea:	80/90 ha
- Arabako Erdialdeko EE guztira:	4.300/4.650 ha

g) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Araba Erdialdeko Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Zentraltasun handieneko udalerriak (A kategoria)

Oka-Iruña, Gasteiz eta Zigoitia.

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)

Aramiñon, Beranturi, Erribera Beitia eta Agurain.

- Gainerako udalerriak (C kategoria)

Dulantzi, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Bernedo, Kanpezu, Burgelu, Iruraiz-Gauna, Kuartango, Lagran, Lantaron, Legutio, Otxandio, Urizaharra, Erribera Goitia, Gesaltza, Donemiliaga, Ubide, Urkabustaiz, Gaubea, Harana, Zalduondo, Zanbrana, Zuia.

16. artikulua.- Aiarako Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Aiarako Eskualde Egiturako biztanleria %2,3 murriztu da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino puntu bat gutxiago, eta biztanleria aktiboa %17 handitu da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 3 puntu gehiago. Bigarren sektorean lanean ari den biztanleriaren portzentajea %63tik %51ra jaitsi da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 3,5 portzentaje-puntu gehiago.

Gaur egun, Aiarako Eskualde Egiturak saldo orekatua du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriaren eta enplegu-kopuruaren artean. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indizea hektareako 27 enplegukoa da. Laudioko kasuan izan ezik, udalerrietan lurzoru libre planifikatuaren eskaintza behar adinakoa da.

Batik bat eskari endogenoa aseko dela bermatzera zuzendutako lurzoru-politika gauzatuko da, lurzoru-eskaintza pixka bat handituz Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egituratik eragindako eskari exogenoaren zati bat hartu ahal izateko. Biztanleriaren eta enpleguaren arteko egoera orekatuta dagoenez gero, ez da lehentasunez sustatzeko ekintza berezirik proposatzen.

Laudioko udalerrian, berariazko hirigintza-politika kudeatuko da, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko prozesuak sustatzeko asmoz.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Amurrio, Arakaldo, Artziniega, Aiara, Laudio, Okondo, Urduña eta Orozkoko udalerriek osatzen duten Aiarako Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratzen da.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Aiarako Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Amurrio, Aiara, Laudio
- Hazkunde moteleko udalerriak
Arakaldo, Artziniega, Urduña, Orozko
- Garapen txikiko udalerriak
Okondo

d) Sustapen-eremuak

Ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza leheneratzeko Aiarako Eskualde Egituran proposatutako "sustapen-eremuak":

- Laudio ingurua

e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Aiarako Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak garatuko dira:

- Amurrio/Aiarako eskualde-mailako poligono berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 25/50 ha.
Kokapen estrategikotzat Luxaondo eta Amurrio Iparraldea/Aiara arteko esparrua hartzen da.
- Laudioko eskualde-mailako Industrialde berria
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 10/25 ha.

f) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A. Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera321 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren gainean 0,75eko minorazio-faktorea aplikatzen da..... 85 ha
- C. Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.....40/60 ha
- D. Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera40/80 ha
- Aiarako Eskualde Egiturarako kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)..... 490/540 ha

g) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Aiara Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)
Amurrio, Aiara eta Laudio.
- Gainerako udalerriak (C kategoria)
Arakaldo, Artziniega, Okondo, Urduña eta Orozko.

17. artikulua.- Arabako Errioxako Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Arabako Errioxako Eskualde Egiturako biztanleria %1,5 hazi da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 3 puntu gehiago, eta biztanleria aktiboa %26, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 12 puntu gehiago. Bigarren sektorean lanean ari den biztanleriaren portzentajea %34tik %32ra baino ez da jaitsi, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 6 portzentaje-puntu gutxiago.

Gaur egun, Arabako Errioxako Eskualde Egiturak 1.300 industria-enpleguko superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko (Logroñon bizi den biztanleriari dagokio). Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indizea hektareako 16 enplegukoa da. Ez dago lurzoru libre kalifikatuaren erreserba handirik, lurzoru mahasti gisa ustiatzeko alternatibaren lehia garrantzitsua dela-eta.

Hirigune nagusietan industrialdeen tipologiako poligono txikiak sustatuko dira, eskari endogenoa asetzeko. Alabaina, Logroñoren presentziak eragindako eskari exogenoaren potentziala eta ardogintza-instalazio handi berriak ezar litezkeela kontuan izanik, Oion eta Biasteri-Casablanca-Lantziego inguruan lurzoru berriak aurreikustea komeni da.

Biasteriko hirigunean, eskualde-mailako industrialde bat sustatuko da, industria-ezarpn endogenoen garapena bultzatzeko.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Mainueta, Eltziego, Bilar, Kripan, Bastida, Biasteri, Lantziego, La Puebla de Labarka, Leza, Moreta, Nabaridas, Oion, Samaniego, Uriona eta Ekora udalerriek osatzen duten Arabako Errioxako Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratzeko da.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Arabako Errioxako Eskualde Egiturako udalerririk ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerririk
Biasteri, Oion
- Hazkunde moteleko udalerririk
Eltziego, Bastida, Lantziego
- Garapen txikiko udalerririk
Mainueta, Bilar, Kripan, La Puebla de Labarka, Leza, Moreta, Nabaridas, Samaniego, Uriona, Ekora.

d) Sustapen-eremuak

Arabako Errioxako Eskualde Egituran landaguneetako industria-jarduerarako proposatutako sustapen-eremuak:

- Industrialdea Biasteriko hirigunean.

e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Arabako Errioxako Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- Oion edo Biasteri - Lantziegoko eskualde mailako poligono berria
Logroñoren eragin-esparruan alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. Biasteri eta Lantziegoko udalerrietan Malpica - El Carrascal eremua proposatzen da Casablanca poligonoaren balizko zabaltze-eremu gisa.
50/75 ha.
- Biasteriko eskualde-mailako Industrialde berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 5/10 ha.

f) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera171 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Mahastiaren lehia-faktorea baloratzeko, lurzoru kalifikatuen eta okupatu gabeen gainean 0,5eko minorazio-faktorea aplikatzen da 65 ha
- C Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.....25/50 ha
- D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera65/130 ha
- Arabako Errioxako EEren kuantifikazio orokorra (A+B+C+D) 350/400 ha

g) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Araba Errioxako Eskualde Egiturako udalerririk honela sailkatzen dira:

- Zentraltasun handieneko udalerririk (A kategoria)
Oion.
- Eskualde-zentraltasuneko udalerririk (B kategoria)
Biasteri.
- Gainerako udalerririk (C kategoria)
Mainueta, Eltziego, Bilar, Kripan, La Puebla de Labarka, Bastida, Biasteri, Lantziego, Leza, Moreta, Nabaridas, Samaniego, Uriona eta Ekora.

18. artikulua.- Arratiako Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Arratiako Eskualde Egiturako biztanleria %4,8 murriztu da, 3,5 puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik, eta biztanleria aktiboa %50etik gora handitu da. Bigarren sektorean lanean ari den biztanleriaren portzentajea %53tik %48ra baino ez da jaitsi, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 3 portzentaje-puntu gutxiago.

Gaur egun, Arratiako Eskualde Egiturak 1.800 industria-enpleguko superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indizea hektareako 40 enplegukoa da. Eskualdeak eskuragarri dagoen lurzoru kalifikatuko erreserba adierazgarriak ditu Artea-Arantzazun eta Diman.

Arratiako Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru kudeatzeko helburua eskari endogenoa asetzeari besterik ez da, eta ez da administrazio publikotik esku hartzeko premia handirik antzematen.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuri udalerriek osatzen duten Arratiako Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratu da.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Arratiako Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Bedia, Igorre, Lemoa
- Garapen moteleko udalerriak
Artea
- Garapen txikiko udalerriak
Arantzazu, Areatza, Dima, Zeanuri

d) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Arratiako Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketa gauzatuko da:

- Arratiako haraneko eskualde-mailako Industrialde berria
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. Artean aurreikusten den poligonoa aukeretako bat izan daiteke.

e) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera105 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren gainean 0,75eko minorazio-faktorea aplikatzen da..... 40 ha
- C Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira..... --- ha
- D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera20/40 ha
- Arratiako Eskualde Egiturarako kuantifikazio orokorra..... 165/185 ha

f) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Arratiako Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Gainerako udalerriak (C kategoria)

Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuri.

19. artikulua.- Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egitura.

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Bilbo metropolitarrako Eskualde Egiturako biztanleria osoa %2,9 murriztu da, 1,4 puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik. Biztanleria aktiboa %11 hazi da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 3 puntu gutxiago. Bigarren sektorean lanean ari den biztanleriaren portzentajea %46tik %38ra jaitsi da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren antzeko proportzioan.

Gaur egun, Bilbo metropolitarrako Eskualde Egiturak desoreka handiak ditu bere azpieskualdeetan industria-enpleguen kopuruaren eta bigarren sektorean lanean ari den biztanleriaren artean. 13.200 industria-enpleguko defizita antzematen da Ezkerraldean eta 6.500 industria-enplegukoa Plentzia-Leioa iraganbidean; Txorierrin, ordea, 9.800 industria-enpleguko superabita dago eta 1.400ekoa Nerbioi Beherean. Eskualde-egiturako industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren batez besteko indizea hektareako 48 enplegukoa da. Bilbo metropolitarran ez dago lurzoru libre erabilgarriaren benetako eskaintza adierazgarririk, itsasadarreko industria-espazio handiak birmoldatzeko prozesuek hainbat eragozpenekin egiten baitute topo: hirugarren sektorerako edo bizitegitarrako birkalifikatzeko higiezinaren arloko presioa, auri ugari eta poluitutako lurzorua, espekulazio ikaragarria lurzoruaren prezioan...

Bilbo metropolitarrako Eskualde Egiturako azpieskualde bakoitzerako politika bereizia gauzatu da:

- Kanpoko portuko espazio-eskaintza hurbileko plataforma logistiko berriekin osatzeko premia.
- Ezkerraldeko etengabeko industria-deskalifikazioko prozesua geldiarazteko premia, hirugarren sektorerako eta bizitegitarrako birkalifikazioak zorrozki murriztuz.
- Ezkerraldean jarduera ekonomikoetako poligono berriak sustatzea zona honek duen industria-enpleguen defizit handia arintzeko eta Kanpoko portuak sortuko duen erakartze-ahalmena kapitalizatzeke.
- Itsasadarraren kanpoaldeko ertzetan hirugarren sektorerako lurzoru berriak sustatzea.
- Leioa-Plentzia iraganbidean zona horren bizitegi-izaerarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriak sustatzea. Horren osagarri gisa, hirugarren sektoreko jardueretarako eremu berriak eta enpresentzako zerbitzuak sustatzea.
- Txorierrin industria-garapen berriei eustea, eremu hori hirugarren sektoreko eta bizitegiko hazkunde berriekin pixkanaka berrerekatzeko. Ildo horretatik, Teknologia Elkartegia aireportutik gertu dagoenez, interes orokorraren ikuspegitik, ez da lehentasunezko hartzen hirugarren sektoreko jardueretarako gainazal gehiago sortzea aireportuaren eraginpeko eremuan; jakina, aireportu-sistema orokorraren barruan terminalaren beraren zuzkidurak berezkoak dituen laguntza-instalazio osagarriak salbuetsita. Nolanahi ere, ingururako litezkeen hirigintza-garapen sinergiko gisa, lehentasunez, Txorierriko eremuaren aniztasun funtzionala sustatzeko bizitegi-eragiketak sustatzea proposatzen dira.
- Asuako Haranaren hego-ekialdean Txorierriko iraganbidearen jarraipenari zuzenean lotutako plataforma logistiko handi bat lehentasunez sortzea, Bilbotik hurbil dagoen salgaiak banatzeko zentro berri gisa.
- Nerbioi Behereko zonan, espazio-erreserbak oso urriak direnez gero, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kalifikazioa bere horretan uztea komeni da, industria-

enplegua suntsi ez dadin, eta horrenbestez, bizitegitarako birkalifikazio berririk ez egitea planteatzen da.

- Bilboko udalerrian dauden industria-enklabe urriak pixkanaka hirugarren sektoreko jardueretarako eremu gisa birmoldatzea bultzatu beharko da, bizitegitarako birkalifikatzea saihestuz.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoria kudeatzeko ondoko lurralde-banaketa ezarriko da:

- Kanpoko portua
Bilboko Portu Autonomoari dagokion kanpoko portuaren esparrua.
- Itsasadarra eta Ezkerraldea
Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Barakaldo, Erandio (Udondo, Atzaga eta Asuako ibarrak), Muskiz, Urtuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapaga eta Zierbena.
- Bilbo
Bilboko udalerrria, bere problematikaren berariazkotasuna dela-eta, kudeaketa-eremu independente gisa bereizten da.
- Leioa-Plentzia iraganbidea edo Eskuinaldea
Barrika, Berango, Getxo, Gorniz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopelana, Urduliz eta Erandioko udal-mugapearen iparraldea.
- Txorierri
Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudio.
- Nerbioi Beherea
Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Ugao, Zaratamo eta Zeberio.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Leioa, Lezama, Loiu, Muskiz, Urtuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Trapaga, Ugao, Zamudio, Zaratamo, Zierbena
- Hazkunde moteleko udalerriak
Berango, Getxo, Larrabetzu, Sopela, Urduliz
- Garapen txikiko udalerriak
Barrika, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Zeberio

d) Sustapen-eremuak

Ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza leheneratzeko "sustapen-eremuak":

- Ezkerraldea eta Bilbo eta Erandioko udalerriak Bilbo metropolitarrako Eskualde Egituran.

e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- *Kanpoko Portua*
 - Kanpoko Portuko plataforma logistikoak eta modalitate artekoak eta Salgaien garraio eta banaketako jardueretarako poligonoak.
Sailkapen-geltokiaren eta edukiontzien geltokiaren laguntzarako plataformak. Edukiontzien eta ibilgailuen terminalak. Edukiontzi-kaietarako eta erabilera askotariko kaietarako plataformak. Industria-plantak. Biltegitartzeko zabalgunekak Garraioaren Hiria El Calero eremuan eta abar: 280 ha.
- *Itsasadarra eta Ezkerraldea*
 - Desiertoko (Barakaldo) eta Ansio Ibarreko (Barakaldo) enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parkeak.
Desiertoko (Barakaldo) Urban eragiketa, Lutzana-Burceña-Barakaldoko enpresa-parkea eta Ansio ibarreko erakustazoka, hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoetarako eremu gisa garatzea.
 - Serantesko zentro logistikoa.
Kanpoko Portuaren zabaltze-azalera gisa konfiguratutako errepidean zeharreko garraiorako zerbitzura dauden plataforma logistikoak, A-8 autobidearen eta Serantes mendiaren artean kokatuak. 75/100 ha.
 - Trapagako salgaien garraio eta banaketako jardueretarako poligonoa.
Aparcavisa garraio-zentroa sendotzea eta zabaltzea. 15/30 ha.
 - Ezkerraldeko eskualde-mailako poligono berriak.
Sestaon, Abanton eta Urtuellan (Acería Compacta, El Campillo, Abra Industrial, Granada) garatzen ari diren poligono eta instalazio berriak sendotzea eta Sestaoko (Altos Hornos, Aurrera eta La Naval), Barakaldoko (Sefanitro), Trapagako (Babcock Wilcox, General Eléctrica eta Ballonti) eta Portugaleteko (Ballonti) industria-birmoldaketako eremuen gainean ezarpen-eremu publiko berriak sortzea.
 - Erandioko enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parkea.
Ibaiaren eskuinaldeko industrialde zaharkituak eraldatzeko ekintzak, hirugarren sektoreko jardueretarako poligonoak sortuta.
Udondoko ibarra, Axpeko urbazterrak, Altzagako ibarra, Lutzanako San Jose eta Asuaren mozketa. 10/25 ha.
 - Muskizko eskualde-mailako industrialde berria.
Santelices-Petronila sektorearen garapena. 10/15 ha.
- *Bilbo*
 - Zorrozako enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parkea.
Zorrozako penintsulan hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoak ezartzea. 25/50 ha.
- *Plentzia-Leioa iraganbidea*

- Getxo-Berangoko enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parkea. Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 25 ha.
- Sopelana-Urdulizko eskualde-mailako Industrialde berria. Lanpostuko espazio-okupazio txikia duten industria-jarduera arinak sortzea. Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 25/50 ha.
- *Txorierrri*
 - Zamudioko Teknologi Elkartegia. Teknologi Elkartegia sendotzea eta garatzea. Zamudio eta Derio. 125/150 ha. Ildo horretatik, Teknologi Elkartegia aireportutik gertu dagoenez, interes orokorraren ikuspegitik, ez da lehentasunezko hartzen hirugarren sektoreko jardueretarako gainazal gehiago sortzea aireportuaren eraginpeko eremuan; jakina, aireportu-sistema orokorraren barruan terminalaren beraren zuzkidurak berezkoak dituen laguntza-instalazio osagarriak salbuetsita. Nolanahi ere, ingururako litezkeen hirigintza-garapen sinergiko gisa, lehentasunez, Txorierrriko eremuaren aniztasun funtzionala sustatzeko bizitegi-eragiketak sustatzea proposatzen dira.
 - Txorierrriko iraganbideko salgaien garraio eta banaketako jardueretarako poligono berria. Txorierrriko iraganbidearen 2. faseari lotzen zaizkion alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. Lezama/Larrabetzu. 25/50 ha.
- *Nerbioi Beherea*
 - Nerbioi Behereko eskualde-mailako industrialde berria. Alternatiba berriak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. Industria-instalazio zaharkituak husteari lotzen zaizkion eragiketak. 25/50 ha.

f) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

A. Gaur egun jarduera ekonomikoetarako instalazioek okupatutako lurzoruen azalera.

- Kanpoko Portua:	121 ha
- Itsasadarra eta Ezkerraldea:	938 ha
- Bilbo:	89 ha
- Plentzia-Leioa iraganbidea:	158 ha
- Txorierrri :	369 ha
- Nerbioi Beherea:	479 ha
	2.154 ha
- Guztizko partziala A:	2.154 ha

B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libre azalera. Parentesi artean, eskaintza bideragarria ebaluatzeko inbentarioan jasotako lurzoru libre kalifikatuaren gainean azpieskualde bakoitzari aplikatutako minorazio-koefizientea adierazten da.

- Kanpoko Portua (1,00):	280 ha
- Itsasadarra eta Ezkerraldea (0,50):	160 ha
- Bilbo:	10 ha
- Plentzia-Leioa iraganbidea (0,50):	60 ha
- Txorierrri (0,75):	70 ha
- Nerbioi Behera (0,50):	20 ha
	20 ha

- Guztizko partziala B: 600 ha

C. Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.

- Itsasadarra eta Ezkerraldea:	125/200 ha
- Plentzia-Leioa iraganbidea:	25/50 ha
- Txorierri:	25/50 ha
- Nerbioi Beherea:	25/50 ha
- Guztizko partziala D:	200/350 ha

D. Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera

- Itsasadarra eta Ezkerraldea:	50/100 ha
- Bilbo:	25/50 ha
- Plentzia-Leioa iraganbidea:	50/100 ha
- Txorierri:	25/50 ha
- Nerbioi Beherea:	25/50 ha
- Guztizko partziala D:	175/350 ha

- Kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)

- Kanpoko Portua:	400 ha
- Itsasadarra eta Ezkerraldea:	1.270/1.400 ha
- Bilbo:	130/145 ha
- Plentzia-Leioa iraganbidea:	300/360 ha
- Txorierri:	470/520 ha
- Nerbioi Beherea:	550/600 ha
- Bilbo Metropolitarrako EE guztira:	3.200/3.400 ha

g) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Zentraltasun handieneko udalerriak (A kategoria)

Abanto-Zierbena, Barakaldo, Basauri, Berango, Bilbo, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Urtuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Sopela, Trapaga, Urduliz, Zamudio eta Zamudio.

- Gainerako udallerriak (C kategoria)

Alonsotegi, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Muskiz, Ugao-Miraballes, Zaratamo, Zeberio eta Zierbena.

20. artikulua.- Durangaldeko Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Durangaldeko Eskualde Egiturako biztanleria %1,7 hazi da, 3,5 puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik. Biztanleria aktiboa, aldiz, %6 baino ez da hazi, 8 portzentaje-puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik.

Gaur egun, Durangaldeko Eskualde Egiturak 2.850 industria-enpleguko superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko. Industria-lurzuaren okupazio-indizea hektareako 35 enplegukoa da. Eskualdeak lurzoru libre kalifikatuaren erreserben bolumen handia dauka, batez ere Zornotzan, Boroa poligono handian. Alabaina, Durango eta Iurretan dauden erreserbak ez dira hain operatiboak benetan erabilgarri dagoen eskaintza gisa, baserri ugari baitaude sakabanatuta.

Eskualdeak etorkizunean garatzeko itxaropen handiak ditu, bi faktore biltzen baitira bertan: alde batetik, espazio librea izatea eta, bestetik, gaur egun oso aseta dauden bi zonaren artean Bilbo metropolitarra eta Gipuzkoako Debako eskualdeak estrategikoki kokatuta egotea. Beasain-Durango iraganbidearen eraikuntzarekin eta abiadura handiko trenaren trazadurarekin Durangaldea Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabideen puntu estrategiko bihurtuko da. Beraz, Durangaldea etorkizunean salgaien garraio eta banaketari lotutako plataforma logistikoak kokatzeko zona apropos gisa eta lehentasunezko garapen-zona gisa konfiguratzeko da, erakartze-ahalmen handia baitu Bilbo metropolitarrako eta Debako Haraneko enpresentzat.

Durangaldeko Eskualde Egituran, komunikabide-ardatz handiekiko (A-8 autobidea, Beasain-Durango iraganbidea, Euskotren trenbide-linea, abiadura handiko etorkizuneko linea eta abar) zuzeneko lotura bermatuko duten kokalekuetan ezarritako plataforma logistiko berriak eta eskualde-mailako poligonoak aurreikusteko politika gauzatuko da.

Industria-hazkunde endogenoaren garapena bermatzeko eta Boroa poligonoa espazio-erreserba handi gisa finkatzeko beharrezkoak diren lurzoru-aurreikuspenez gain, eskualdez gaindiko plataforma logistikoak eta industria-poligonoak eta salgaiak banatzekoak eskaintzeko eragiketa publiko gisa gara daitezkeen kokaleku estrategiko berriak bilatuko dira.

b) Lurzuaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Abadiño, Zornotza, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibarko udalerriek osatzen duten Durangaldeko Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzuaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratzeko da.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Durangaldeko Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Abadiño, Zornotza, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza
- Hazkunde moteleko udalerriak
Zaldibar
- Garapen txikiko udalerriak
Garai, Mañaria

d) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Durangaldeko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- Durango inguruko salgaien garraio eta banaketako jardueretarako poligono berria.
A-8 autobideak, N-634 errepideak eta Beasain-Durango ardatzak bat egiten duten gunean oinarrituko den garraiorako zerbitzu egingo duen poligono baten alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 25/50 ha.
- Durango inguruko eskualde-mailako poligono berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 25/50 ha.
- Amorebieta inguruko eskualde-mailako poligono berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 25/50 ha.
- Boroako erreserba estrategikoa
Boroako poligonoa erreserba estrategikoko esparrutzat hartzea.

e) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera510 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libre azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren gainean 0,75eko minorazio-faktorea aplikatzen da.....185 ha
- C. Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira..... 100/150 ha
- D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera 100/200 ha
- Durangaldeko EEko kuantifikazio orokorra (A+B+C+D) 900/1.000 ha

f) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Durangaldeko Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)
Abadiño, Zornotza, Durango eta Iurreta.
- Gainerako udalerriak (C kategoria)
Atxondo, Berriz, Elorrio, Garai, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

21. artikulua.- Enkartazioetako Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Enkartazioko Eskualde Egiturako biztanleria %2 murriztu da, ia puntu bat Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik. Biztanleria aktiboa %11 hazi da, 3 portzentaje-puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren azpitik.

1999an Enkartazioko Eskualde Egiturak 2.000 industria-enpleguko defizita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko; beraz, lanean ari den biztanleriaren erdia baino gehiago kanpora joaten da egunero lanera. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indize orokorra hektareako 21 enplegukoa da. Oro har lurzoru libre kalifikatuaren eskaintza behar adinakoa da, eta bere garapenik eza eskariaren ahuleriaren ondorio dela uste da.

Eskualdean oro har demografia geldiarazi egin dela eta ekonomia-bultzadarik ez dagoela antzematen da eta horren adierazgarri dira desagertu diren enpresak eta inbertsio alternatiborik eza. Horretan eragin handia du komunikabideen arloan duen defizitak, izan ere BI-636 errepidearen ardatza oso mugatuta baitago gaur egun.

Sustapen aktiboko politika gauzatuko da, ekimen publikoko eskualde-poligono bat sortuz. Komenigarritzat jotzen da eskualdearen ekialdean kokatzea, Sodupe eta Guenes artean, eskualdearen eta Bilbo metropolitarraren arteko jardueren erakargune gisa jardun dezan. Eskualdea dinamizatzeko guztiz positiboa izango litzateke Kadaguako autobia eraikitzea, Sodupe eta A-8 autobidearen arteko lehen lotura-tartea.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Artzentaletan, Balmaseda, Karrantza, Galdames, Gordexola, Guenes, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zallako udalerriek osatzen duten Enkartazioetako Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratzeko da.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Enkartazioetako Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

Lehentasunezko intereseko udalerriak
Guenes, Zalla

- Hazkunde moteleko udalerriak
Balmaseda

Garapen txikiko udalerriak
Artzentaletan, Karrantza, Galdames, Gordexola, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz

d) Sustapen-eremuak

Industria-enpleguan defizita duten eskualde-buruak dinamizatzeko "sustapen-eremuak".

- Zalla-Guenesko zona.

e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Enkartazioetako Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketa gauzatuko da:

- Guenesko eskualde-mailako poligono berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 25/50 ha.
Sodupe eta Guenes arteko haranaren tarte hartzen da kokapen estrategikotzat.

f) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera 85 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libre azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren gainean 0,75eko minorazio-faktorea aplikatzen da..... 60 ha
- C Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.....25/50 ha
- D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera25/50 ha
- Enkartazioetako kuantifikazio orokorra (A+B+C+D) 200/250 ha

g) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Enkartazioetako Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)
Balmaseda, Guenes eta Zalla.
- Gainerako udalerriak (C kategoria)
Artzentales, Karrantza, Galdames, Gordexola, Lanestosa, Sodupe eta Turtzioz.

22. artikulua.- Busturialdea-Artibaiko Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Busturialdea-Artibaiko Eskualde Egiturako biztanleria osoa %3 murriztu da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino ia bi portzentaje-puntu gutxiago. Denbora-tarte honetan biztanleria aktiboa %9 hazi den arren, igoera hau Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 5 portzentaje-puntu txikiagoa da.

Gaur egun, Busturialdea-Artibaiko Eskualde Egiturak 3.000 industria-enpleguko defizita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko (1.850 Urdaibain eta 1.150 Lea-Artibain); beraz, industrian lanean ari den biztanleriaren laurdena kanpora joaten da egunero lanera, nahiz eta komunikabideak txarrak izan. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indizea hektareako 47 enplegukoa da (hektareako 42 enplegu Urdaibain eta hektareako 54 enplegu 1.150 Lea-Artibain). Eskualde-egitura honek ez du lurzoru libre kalifikatuaren eskaintza adierazgarririk. Bermeo eta Ondarroako kostaldeko portuetan egoera hori larriki nabarmentzen da, espaziorik ez dagoenez gero ezin baitira sortutako eskariak ase. Bi kasuetan poligono txikiak sustatu dira mugakide dituzten Mundaka eta Mutrikuko udalerrietan, hurrenez hurren, baina espazio-mugak konponezinak dira.

Eskualdean oro har demografia nolabait ere geldiarazi egin dela eta ekonomia-dinamismorik ez dagoela antzematen da, irisgarritasun-baldintza txarren eta komunikabide-sistema eskasaren ondorioz. Bermeo eta Ondarroako portuen posizio eszentrikoa eta haien garapenerako espazio fisikorik eza, kanpoaldearekiko komunikabideak pixkanaka hobetzen ari diren arren, azpiegitura hauek abiapuntutzat hartuta jarduera ekonomikoa handiagoa sortzeko ahalmena nabarmenki mugatzen duen faktore erabakigarria da.

Urdaibain sustapen aktiboko politika gauzatuko da, ekimen publikoko eskualde-poligono bat sortuz. Komenigarritzat jotzen da eskualdearen hegoaldean kokatzea, Gernika eta Zornotza artean, inbertsioen erakargune gisa eta A-8 autobidearen eta eskualdearen arteko bitarteko lotune gisa jardun dezan. Hala, Gernikan dauden jarduera ekonomikoko eremu zaharkituen hirigintza-suspertzea sustatzea komeni da. LAParen proposamenak erabakitzeke, Urdaibaiko biosferaren erreseerbaren gizarte- eta jarduera ekonomikoak amortizatu eta garatzeko programa bereziki kontuan hartu da.

Lea-Artibaiko azpieskualdean sustapen-politika toki-mailako jarduera txikietan banatzea komeni da, herri bakoitzaren berriazko eskariak eta espazio-erabilgarritasunak kontuan hartuta.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Busturialdea-Artibaiko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikotarako lurzoru kudeatzeko ondoko lurralde-banaketa ezartzen da:

- Urdaibai
Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta.
- Lea-Artibai
Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarri, Gizaburuaga, Ipazter, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa eta Mutrikuko udalerriko Mijoa ingurua.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Busturialdea-Artibaiko Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Bermeo, Gernika-Lumo, Ondarroa

- Hazkunde moteleko udalerrriak
Ajangiz, Berriatua, Etxebarri, Markina-Xemein, Mundaka, Muxika
- Garapen txikiko udalerrriak
Amoroto, Aulesti, Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz-Arteaga, Gizaburuaga, Ibarrangelu, Ipazter, Kortezubi, Lekeitio, Mendata, Mendexa, Morga, Munitibar, Murueta, Nabarniz, Sukarrieta

d) Sustapen-eremuak

Industria-enpleguan defizita duten eskualde-buruak dinamizatzeko "sustapen-eremuak":

- Gernikako hegoaldea (Gernika-Mujika-Ajangiz) Urdaibaiko azpieskualdean.
- Markinako zona Lea-Artibaiko azpieskualdean.

e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Busturialdea-Artibaiko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- *Urdaibai*
 - Urdaibaiko eskualde-mailako poligono berria
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. Gernikako hegoaldean kokatzea, Ajangiz edo Muxikako udal-mugarteetan, eta BI-638 errepidetik sarbidea izatea gomendatzen da. 25/50 ha.
 - Bermeoko Portuko eskualde-mailako industrialde berria
Bermeo-Mundaka inguruko alternatiba berriak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 5/10 ha.
- *Lea-Artibai*
 - Artibaiko eskualde-mailako industrialde berria
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 10/15 ha.

f) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

A. Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera.

- Urdaibai:	117 ha
- Lea-Artibai:	73 ha
	<hr/>
- Guztizko partziala A:	190 ha

B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren gainean 0,50eko minorazio-faktorea aplikatzen da.

- Urdaibai:	20 ha
- Lea-Artibai:	15 ha
	<hr/>
- Guztizko partziala B:	35 ha

C. Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.

- Urdaibai:	40/60 ha
- Lea-Artibai:	10/15 ha
- Guztizko partziala C:	50/75 ha

D. Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera.

- Urdaibai:	25/50 ha
- Lea-Artibai:	10/20 ha
- Guztizko partziala D:	35/70 ha

- Kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)

- Urdaibai:	210/240 ha
- Lea-Artibai:	110/120 ha
- Busturialdea-Artibaiko EE guztira:	320/360 ha

g) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Busturialdea-Artibaiko Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)

Ajangiz eta Gernika-Lumo.

- Gainerako udalerriak (C kategoria)

Amoroto, Arratzu, Aulesti, Bermeo, Berriatua, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Forua, Gaategiz-Arteaga, Gizaburuaga, Ibarrangelua, Ipazter, Kortezubi, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendata, Mendexa, Morga, Mundaka, Munitibar-Abartzegi-Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz, Ondarra eta Sukarrieta.

23. artikulua.- Mungiako Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Mungiako Eskualde Egiturako biztanleria osoa %14 inguru hazi da, 15 puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik, eta biztanleria aktiboa %30, 16 puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik.

Gaur egun, Mungiako Eskualde Egiturak 1.200 industria-enpleguko superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indize orokorra hektareako 43 enplegukoa da. Oro har lurzoru libre kalifikatuaren eskaintza behar adinakoa da, baina erreserbak etengabe asetzearen eta Bilbo metropolitarrako lurzoru garestien ondorioz antzematen den eskari handiak lurzoruak birkalifikatzeko presioak eragin ditzake Mungian eta honen inguruko landa-zonetan.

Eskualde-egiturak demografia-hazkunde handiko eta ekonomia-hedapeneko panorama erakusten du Bilbo metropolitarraren presioaren ondorioz.

Mungiako saihesbidearen eraikuntzarekin eta Sollubeko errepidearen etengabeko hobekuntzarekin BI-631 errepidean sostengu hartuko duen ardatza finkatuko da, non Mungiak espazioa arintzeko eginkizuna beteko baitu, bai Bilbo metropolitarrantzat bai Bermeoko portuarentzat.

Lehentasunez sustapen-eragiketetan baino eskariaren dinamika arautzeko eginkizunean oinarrituko den lurraldea antolatzeko politika gauzatuko da. Kontrol-tresna gisa, industria-lurzoruaren merkatuaren inflazio-tentsioak erregulatzeko eta biztanlegune landatar txikietan lurzoruak birkalifikatzeko toki-ekimenak ugaritzea saihesteko balioko duen sustapen publikoko eskualde-poligono bat sortzea proposatzen da. Nolanahi ere, hazkunde endogenoaren eskariak behar bezala asetzean oinarritu beharko da lurraldea antolatzeko lehentasunezko irizpidea.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri, Meñaka eta Mungiako udalerriek osatzen duten Mungiako Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratzeko da.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Mungiako Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Mungia
- Garapen txikiko udalerriak
Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Jatabe, Meñaka

d) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Mungiako Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketa gauzatuko da:

- Mungiako eskualde-mailako Industrialde berria
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. 10/25 ha.

e) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera102 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren gainean 0,50eko minorazio-faktorea aplikatzen da..... 30 ha
- C Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.....20/30 ha
- D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera20/40 ha
- Mungiako EEko kuantifikazio orokorra (A+B+C+D) 170/200 ha

f) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Mungiako Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)
Mungia.
- Gainerako udalerriak (C kategoria)
Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri eta Meñaka.

24. artikulua.- Debagoieneko Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Debagoieneko Eskualde Egiturako biztanleria osoa %2,5 murriztu da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 1,2 puntu gehiago. Biztanleria aktiboa, ordea, %10 hazi da, 2 portzentaje-puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik.

Ekonomia-dinamika handia duen baina espazio-ahalmenik ezaren ondorioz hedapen kuantitatiboko prozesuan muga jotzen ari den eskualdeari dagozkio ratio horiek. Bere jarduera ekonomikoen eboluzioaren alderdi kualitatiboetan zehaztu beharko dira eskualde honen garapen-erronka berriak.

Gaur egun, Debagoieneko Eskualde Egiturak 3.700 industria-enpleguko superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indize orokorra hektareako 53 enplegukoa da. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru kalifikatu eta librearen erreserbak urriak dira, Arrasaten izan ezik, eta garatzeko eragozpen larriak dituzte, bertako orografia zaila dela eta.

Irizpide orokor gisa, eskualde-egiturako espazio-erreserben urritasuna kontuan izanik, jarduera ekonomikoetarako lurzoru guztien kalifikazioa bere horretan uztea komeni da eta, horrenbestez, bizitegitarako birmoldaketa sistematikoari ez ekitea planteatzen da. Honela, eskualdeko jarduera ekonomikoen euskarri den lurzoru suntsi dadin saihestea lortu nahi da.

Eskari endogenoari ere erantzuteko Eskualde Egiturako espazio-eskasiaren aurrean, mantendu beharreko jarduera ekonomikoak pixkanaka hautatu beharko dira, balio erantsi handienekoak mantenduz, hots, teknologia berriei dagozkienak eta enpresentzako hirugarren sektoreko zerbitzuetakoak, eta espazio handia behar duten jarduerak kanporantz bideratuz.

Industria-lurzoruaren urritasunarekiko aukera osagarri gisa, azpiegitura handien eraikuntza (Eibar-Gasteiz autobidea, abiadura handiko tren) aprobetxatuz, haranaren goialdeko zonetako puntu jakin batzuetan betelanak eginez plataforma handiak antolatu eta lurzoru berriak sortzeko aukerak aztertu beharko dira. Plataforma hauek jarduera ekonomikoetarako poligono gisa aprobetxa litezke sare orokorretik bertara sartzeko bideak eta azpiegitura-hartuneak ebazten badira.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Antzuola, Aramaio (mugaketaren ingurua izan ezik) Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta (Iburreka ingurua izan ezik), Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko udalerriek osatzen duten Debagoieneko Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratu da.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Debagoieneko Eskualde Egiturako udalerririk ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerririk
Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Oñati
- Garapen txikiko udalerririk
Aramaio, Leintz-Gatzaga

d) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Debagoieneko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- Deba Goienerako enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parke berria. Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana.
Garaia eragiketa, garapen-fasean. 25/50 ha.
- Zaldunbideko garraiorako zerbitzu-zentroa.
Autobidearen eta Beasain-Durango ardatzaren arteko lotunearekin lotzen den eremu logistikoa. Elkoromuñoko zabortegia erabil daiteke. 5/10 ha.
- Deba Ertainerako eskualde-mailako poligono berria.
Bergarako eremu garaietan, haranetako hondoetako kanpoko eremuetan alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana, Autobidea eraikitze obren jardun osagarri gisa. 10/25 ha.
- Debagoieneko eskualde-mailako poligono berria.
Arrasateko eremu garaietan, haranetako hondoetako kanpoko eremuetan alternatiba kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana, Autobidea eraikitze obren jardun osagarri gisa. 10/25 ha.

e) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera404 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren gainean 0,75eko minorazio-faktorea aplikatzen da.....135 ha
- C Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.....40/60 ha
- D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera75/125 ha
- Debagoieneko EEren kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)660/730 ha

f) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Debagoieneko Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)
Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara.
- Gainerako udalerriak (C kategoria)

Antzuola, Aramaio, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati.

25. artikulua.- Debabarreneko Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Debabarreneko Eskualde Egiturako biztanleria osoa %7,3 murriztu da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 6 puntu gehiago. Denbora-tarte berean biztanleria aktiboa %1 baino ez da hazi, Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko hazkundea baino 13 portzentaje-puntu gutxiago beraz.

Mende-erdialdean izandako demografia- eta industria-hazkundeak xurgatzeko espazio-zintzasunaren ondorioz eskualdea jasaten ari den halabeharrezko zuzenketa-dinamika nabarmentzen dute ratio hauek.

Gaur egun, Debabarreneko Eskualde Egiturak 2.450 industria-enpleguko superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indize orokorra hektareako 56 enplegukoa da. Itziar poligonoaren kasu berezia eta sustatzen ari diren Elgoibar eta Mallabiko sorrera publikoko poligono berriek sortutako itxaropenak kenduta, ia ez dago jarduera ekonomikoetarako lurzoru kalifikatu eta librearen erreserbarik.

Espazio-urritasun larria kontuan izanik, jarduera ekonomikoetarako lurzoru guztien kalifikazioa bere horretan utziko da eta, horrenbestez, salbuespenak salbuespen, bizitegitarako birkalifikazio berririk ez da egingo. Honela, eskualdeko jarduera ekonomikoen euskarri ordezkazina den lurzoru suntsi dadin saihestea lortu nahi da.

Debabarreneko Eskualde Egiturak ez du bere eskari endogenoari ere erantzuteko espazio-ahalmenik eta, hori dela-eta, jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoru guztiak kontserbatzea gomendatzen da. Hori dela-eta, behar-beharrezkoa da jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoru guztiak kontserbatzea. Kontserbatu beharreko jarduerak pixkanaka hautatu beharko dira, balio erantsi handienekoak mantenduz, hots, teknologia berriei dagozkienak eta enpresentzako hirugarren sektoreko zerbitzuetakoak, eta espazio handia behar duten jarduerak kanporantz bideratuz.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku (Mijoa ingurua izan ezik) eta Soraluzeko udalerriek eta Ego ibaiaren arroari dagozkion Elgeta eta Zaldibarko udalerrien zatiek osatzen duten Debabarreneko Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratu da.

c) Lehetasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Debabarreneko Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehetasunezko intereseko udalerriak
Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku, Soraluze

d) Sustapen-eremuak

Debabarreneko Eskualde Egituran landaguneetako industria-jarduerarako proposatutako sustapen-eremuak:

- Eibar-Ermua ingurua

e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Debabarreneko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- Albitxuriko eskualde-mailako Industrialde berria
Elgoibarren aurreikusten den poligonoaren garapena.
- Mutrikuko eskualdeko Industrialdea zabaltzea.
Mijoa poligonoa zabaltzea, Ondarroako portuari laguntzeko jarduna. 5 ha.
- Itziarko eskualde-mailako industrialde berria.
Itziarko poligonoan hutsik dauden lurzoruak eskualde-mailako industrialde gisa garatzea. Deba. 5 ha.
- Eskualde-egituraren mendebaldean (Ermua-Mallabia) eskualde-mailako industrialde berria.
10/15 ha.

f) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera282 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren guztizko eskaintzaren gainean 0,50eko minorazio-faktorea aplikatzen da 50 ha
- C Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.....10/15 ha
- D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera35/70 ha
- Debabarreneko EEren kuantifikazio orokorra (A+B+C+D).....375/410 ha

g) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Debabarreneko Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)
Eibar eta Elgoibar.
- Gainerako udalerriak (C kategoria)
Deba, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze.

26. artikulua.- Donostia-Beterriko Eskualde Egitura

a) Okupazio-irizpideak

Azken hamarkadan Donostia-Beterriko Eskualde Egiturako biztanleria osoa zertxobait murriztu da, %0,6, Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko joerarekin bat etorriz. Biztanleria aktiboa, ordea, %19 hazi da, 5 puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik.

Adierazleak azpieskualdeka bananduz, Bidasoa Behereko eta Donostialdeko hego-mendebaldeko azpieskualdeetan demografia-hazkunde txikiak izan dira, Donostiako udalerrriak eutsi egin dio biztanleriari eta Oarsoaldeko azpieskualdean, berriz, biztanleriak %6 egin du behera.

Lanean ari den biztanleriari dagokionez, Oarsoaldean oraindik ere langabezia-indize handia dagoela egiazta daiteke. Arazo honek eraginda, administrazioak sustapen publikoko berriazko programa bat abiarazi du Pasaiako Badian industria-birmoldaketako prozesua bizkortzeko.

Gaur egun, Donostia-Beterriko Eskualde Egiturak desoreka handiak ditu bere azpieskualdeetan industria-enpleguen kopuruaren eta bigarren sektorean lanean ari den biztanleriaren artean. 1.500 enpleguko defizita antzematen da Bidasoa Beherean eta 1.250 enplegukoa Oarsoaldean; Donostialdeko hego-mendebaldean, ordea, 2.150 industria-enpleguko superabita dago. Azken urteotan industria-poligono berrien sustapenari esker lurzoru-eskaintza nabarmenki handitu den arren, eskariak xurgatu egin ditu eta aise gainditu ditu aurreikuspenak eta behar-beharrezkoa da garapen berriei ekitea jarduera ekonomikoetarako espazioen premiei aurre egiteko.

Argi eta garbi erantzun gabeko eskarietako bat garraioaren, komunikabideen eta salgai-banaketaren sektorearen zerbitzurako poligonoei dagokiena da. Jarduera honek, batez ere sektorearen tradiziozko gune nagusi izan diren Bidasoa Behereko eta Oarsoaldeko azpieskualdeetan, interes estrategiko nabarmena du bi azpieskualde hauen eta Donostia-Beterriko Eskualde Egitura osoaren etorkizunerako.

Lursail horizontal zabalak edukitzeko premia zailtasun osagarria da topografia malkartsuko zona batean. Hala eta guztiz ere, espazioak, garraioaren zerbitzurako poligonoak eta modalitate arteko plataforma logistikoak lortzea ezinbestean konpondu beharreko gainditu gabeko irakasgaitzat hartu behar da, inbertsioak erakartzeko ahalmen handiko jarduera-sektore bat galdu nahi ez bada.

Eskualde-egiturako beste arazo garrantzitsu bat Pasaiako Portua bere portu-funtzionaltasuneko alderdietan zein bere hirigintza-inguruaren birkualifikazioari dagozkionetan birmoldatzeko prozesuari buruzkoa da. Kanpoko portu bat eraikitzeke aukeraren bideragarritasunari buruzko egiten hasiak diren azterlanak alde batera utzita, prozesu honen barruan garrantzizko elementu bat Lezo-Gaintxurizketa iraganbidea portuari lotutako jarduera logistikoak garatzeko esparru gisa bultzatzean datza.

Donostia-Beterriko Eskualde Egiturako azpieskualde bakoitzerako politika bereizia gauzatuko da:

- Bidasoa Behereko azpieskualdean garraioaren zerbitzurako plataforma logistikoak sortzeko politika proposatzen da, baita Zubietan jarduera berritzaileen enpresa-parke berri bat sortzeko ere, okupazio-maila aurreratuan dauden Donostian kokatutako (Miramon eta Zuatsu) eskaintza osagarri gisa.
- Oarsoaldeko azpieskualdean esku hartzeko estrategia bikoitza kudeatuko da:

- Errenteria, Pasaia eta Donostiako ekialdeko industria-ehun zaharkituak birmoldatzeko politikak, kanpoko sostengu gisako poligonoren bat sortuz (Landarro esate baterako) eta epe ertainera hirugarren sektoreko jardueretako poligono berri bat sustatuz Pasaia Portuko Herrerako kaian.
- Ekonomia Jardueren Garapen Berrietako Erakargunea eta Garraio-sektoreari laguntzekoa sortzea Gaintzurizketako iraganbidean (Lezo-Oiartzun).

Garapen-esparru berri hauek Pasaia Porturako hedapen-eremu logistikoaren eginkizuna bete ahal izango dute, kanpoko portuaren bideragarritasuna alde batera utzita. Gaintzurizketako iraganbidean trenbide/errepide modalitate arteko plataforma baten bideragarritasuna ustiatu beharko da.

- Donostialdeko Hego-mendebaldeko eskualdean gero eta mugatuagoak diren espazio-baliabideen aprobetxamendua optimizatuko da, errepide-sare orokorraren konfigurazio berriarekin koordinatuta (2. ingurabidea eta Urumeako autobia).

Industria-poligonoak, garraioaren zerbitzurako plataforma estrategikoak eta salgaiak banatzeko poligonoak komunikabideen sare orokorrari zuzenean lotuta sortzea proposatzen da.

- Donostiako udalerraren erdialdean, barneko industria-enklabe urriak pixkanaka hirugarren sektoreko jardueretarako eremu gisa birmoldatzea bultzatu beharko da, sistematikoki bizitegi-lurzoru gisa birkalifikatzea saihestuz.

Aldi berean, Miramon eta Zuatsuko enpresa-parkeen garapenak aurrera jarraituko du.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Donostia-Beterriko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoria kudeatzeko ondoko lurralde-banaketa ezartzen da:

- Bidasoa Beherea
Hondarribia eta Irun.
- Oarsoaldea.
Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Donostiako udal-mugapearen ekialdea.
- Donostia
Donostiako udalerrria, bere problematikaren berariazkotasuna dela-eta, kudeaketa-eremu independente gisa bereizten da. Hala eta guztiz ere, esparru jakin batzuk beste kudeaketa-azpierrezen batzuei esleitzen zaizkie (udalerraren ekialdea eta Zubietako kokalekua).
- Donostialdeko hego-mendebaldea
Andoain (Adunako ibarrari atxiki dakiokkeen Balastrain-Matxinea poligonoa izan ezik), Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil eta Donostian dagoen udalerriko Zubietako kokalekua.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Donostia-Beterriko Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta, Usurbil
- Hazkunde moteleko udalerriak
Hondarribia

d) Sustapen-eremuak

Industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen ekonomia suspertzeko eta hirigintza leheneratzeko sustapen-eremuak:

- Oarsoaldeko azpieskualdea

e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Donostia-Beterriko Eskualde Egituran, Planaren esparruan, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- *Bidasoa Beherea*
 - Zubietako enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parkea.
Zubietako finka eta bere ingurunea enpresa-parke gisa garatzea. Hondarribia-Irun. 25/40 ha.
 - Irungo modalitate arteko plataforma logistikoak.
Trenbide-errepide trukerako modalitate arteko instalazio publikoak sortzea. Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana. Trenbide-instalazio zaharkituak erabat berrantolatzea.
 - Irungo salgaien garraio eta banaketako jardueretarako poligonoak.
Zaisako garraio-zentroa zabaltze berriekin garatzea. 25/40 ha.
 - Irungo eskualde-mailako poligono berria.
Arretxe-Ugalde eta Arasoko alternatibak garatzea. 25/40 ha.
- *Oarsoaldea*
 - Herrerako Kaiko enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parkea.
Herrerako Kaiko industria-poligonoa hirugarren sektoreko eremu gisa birmoldatzea. 5/10 ha.
 - Pasaiaiko Portua-Gaintxurizketa iraganbideko plataforma logistikoak eta modalitate artekoak.
Alternatibak kokatzeko eta ebaluatzeko azterlana (Lezoko triangelua, Kanpoko Portua). 25/50 ha.
 - Pasaiaiko Portua-Gaintxurizketa iraganbideko Salgaien garraio eta banaketako jardueretarako poligonoak.
Alternatibak kokatzeko eta ebaluatzeko azterlana (Lanbarren, Lezoko triangelua, Lintzirin, Lezo Mendebaldea eta abar). 50/70 ha.
 - Oarsoaldeko eskualde-mailako poligono berriak.

Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana Pasaia eta Errenteriako hegoaldean. (Landarro, Egiburu eta abar) 25 ha.

- *Donostia*
 - Miramongo Teknologi Elkartegia.
Teknologi Elkartegia sendotzea eta garatzea.
 - Zuatsuko enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parkea.
Teknologi Elkartegia sendotzea eta garatzea.
- *Donostialdeko Hego-Mendebaldea*
 - Zubieta-Oriako garraiorako zerbitzu-zentroa.
N-1 errepidean aurreikusten den garraio-zentroaren garapena. 15/20 ha.
 - Urumeako iraganbideko eskualde-mailako poligono berria.
Astigarraga-Hernani-Urnieta-Andoain ardatzean poligono berri bat garatzeko alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 25 ha.
 - Oria Behereko eskualde-mailako poligono berria.
Usurbil-Lasarte-Oria-Zubieta esparruan poligono berri bat garatzeko alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 25 ha.

f) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

A. Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera.

- Bidasoa Beherea:	204 ha
- Oarsoaldea:	267 ha
- Donostia:	177 ha
- Donostialdeko hego-mendebaldea:	<u>360 ha</u>
- Guztizko partziala A:	1.008 ha

B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Parentesi artean, eskaintza bideragarria ebaluatzeko inbentarioan jasotako lurzoru libre kalifikatuaren gainean azpieskualde bakoitzari aplikatutako minorazio-koefizientea adierazten da.

- Bidasoa Beherea (0,75):	90 ha
- Oarsoaldea (0,75):	80 ha
- Donostia (0,75):	70 ha
- Donostialdeko hego-mendebaldea (0,75):	<u>75 ha</u>
- Guztizko partziala B:	315 ha

C. Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.

- Bidasoa Beherea:	25/50 ha
--------------------	----------

- Oarsoaldea:	50/75 ha
- Donostia:	10/15 ha
- Donostialdeko hego-mendebaldea:	<u>25/50 ha</u>
- Guztizko partziala C:	100/175 ha

D. Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera.

- Bidasoa Beherea:	40/80 ha
- Oarsoaldea:	40/80 ha
- Donostia:	40/80 ha
- Donostialdeko hego-mendebaldea:	<u>40/80 ha</u>
- Guztizko partziala D:	150/300 ha

- Kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)

- Bidasoa Beherea:	370/420 ha
- Oarsoaldea:	440/490 ha
- Donostia:	265/285 ha
- Donostialdeko hego-mendebaldea:	<u>520/550 ha</u>
- Donostia-Beterriko EE guztira:	1.600/1.730 ha

g) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Donostia-Beterriko Eskualde Egiturako udalerrak honela sailkatzen dira:

- Zentraltasun handieneko udalerrak (A kategoria)

Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil.

27. artikulua.- Goierriko Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Goierriko Eskualde Egiturako biztanleria osoa %4,4 murriztu da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 3 portzentaje-puntu gehiago. Denbora-tarte honetan biztanleria aktiboa %2 hazi den arren, igoera hau Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino 6 puntu txikiagoa da.

Gaur egun, Goierriko Eskualde Egiturak egoera argi eta garbi berezia du bi azpieskualdeen artean. Oria Garaiak 800 industria-enpleguko superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko eta Urola Garaiak, aldiz, 1.600 enpleguko defizita du atal horretan bertan. Saldo orokorra negatiboa da eskualde-egitura osorako, 800 industria-enplegukoa hain zuzen. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indize orokorra hektareako 37 enplegukoa da.

Lurzoru libre kalifikatuaren erreserbei dagokienez, oro har oso txikiak direla adierazi beharra dago. Urola Garaiko azpieskualdean ia erreserbarik ez dagoela esan genezake, aurreikusitako erreserba bakarrek, Elbarrena-Legazpi eta Oiaun-Zumarraga poligonoek, ez baitute hirigintza- eta ekonomia-bideragarritasun handirik. Oria Garaiko hiri-plangintzan aurreikusitako garapen berriak, halaber, aukera aski problematikoak dira, salbuespenak salbuespen.

Goierriko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatzeko jarraibideak hauek dira:

- Jarduera ekonomikoak hartzeko lurzoru egokia urria denez gero, gaur egun dauden industria-lurzoru guztien kalifikazioa bere horretan utziko da eta, horrenbestez, bizitegitarako birkalifikazio sistematikorik ez da egingo. Honela, eskualdeko jarduera ekonomikoen oinarritzko euskarria suntsi dadin saihestea lortu nahi da.
- Finkatu beharreko jarduera ekonomikoak pixkanaka hautatuko dira, balio erantsi handienekoak mantenduz, hots, teknologia berriei dagozkienak eta enpresentzako hirugarren sektoreko zerbitzuetakoak, eta espazio handia behar duten jarduerak pixkanaka kanporantz bideratuz.
- Urola Garaiko azpieskualderako, bere industria-jarduerak sortutako lurzoru-eskari endogenoa asetzeko espazio-ahalmenik ere ez duenez gero, Beasain-Zumarraga iraganbidearen inguruetan eskualde-mailako poligono berriak sustatuko dira.
- Era berean, Oriako haranean, erabilgarri dauden erreserben garapenaren osagarri gisa, haranaren hondoaz kanpoko puntuetan N-1 errepideari zuzenean lotutako udalaz gaindiko poligonoak sustatzeko aukerak aztertu beharko dira. Baliabide alternatibo gisa, haranaren goi-tartean, Segurako hirigunearen inguruan erabilgarri dauden espazio-erreserben garapenen bat egitea kontuan har liteke.
- Garraiorako zerbitzu-plataforma logistikoren bat ere sortuko da.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Goierriko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzorua kudeatzeko ondoko lurralde-banaketa ezartzen da:

- Oria Garaia

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria (Alegiako Santa Lutziko ibarra izan ezik), Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain.

- Urola Garaia

Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu, Zumarraga eta Gabiriako udalerriri dagokion Alegiako Santa Lutziko ibarra.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Donostia-Beterriko Eskualde Egiturako udalerririk ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerririk
Arama, Beasain, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu, Zaldibia, Zumarraga
- Hazkunde moteleko udalerririk
Gabiria, Segura, Zegama
- Garapen txikiko udalerririk
Altzaga, Ataun, Gaintza, Mutiloa, Zerain

d) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Goierriko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- Beasain-Zumarraga iraganbideko eskualde-mailako poligono berria
Poligono bat garatzeko alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 25/50 ha.
- Goierriko garraiorako zerbitzu-zentroa
N-1 eta GI-632 errepide-sare nagusiari lotutako eremu logistikorako alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 5/15 ha.
- Oria Garaia
 - Oriaren haraneko eskualde-mailako industrialde berria
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 10/25 ha.
- Urola Garaia
 - Urola Garaiko eskualde-mailako Industrialdea berria
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 5/10 ha.

e) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

A. Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera.

- Oriara Garaia:	269 ha
- Urola Garaia:	<u>115 ha</u>

- Guztizko partziala A: 384 ha

B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Parentesi artean, eskaintza bideragarria ebaluatzeko inbentarioan jasotako lurzoru libre kalifikatuaren gainean azpieskualde bakoitzari aplikatutako minorazio-koefizientea adierazten da.

- Oria Garaia: 50 ha

- Urola Garaia: 25 ha

- Guztizko partziala B: 75 ha

C. Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.

- Oria Garaia: 25/40 ha

- Urola Garaia: 10/15 ha

- Guztizko partziala C: 35/50 ha

E. Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera.

- Oria Garaia: 30/60 ha

- Urola Garaia: 10/20 ha

- Guztizko partziala D: 40/80 ha

- Kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)

- Oria Garaia: 375/415 ha

- Urola Garaia: 160/175 ha

- Goierriko EE guztira: 540/590 ha

f) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Goierriko Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)

Arama, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Lazkao, Legazpi, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarraga.

- Gainerako udalerriak (C kategoria)

Altzaga, Ataun, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Legorreta, Mutiloa, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain.

28. artikulua- Toloserriko Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Toloserriko Eskualde Egiturako biztanleria osoa %2,4 murriztu da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino portzentaje-puntu bat gehiago, eta biztanleria aktiboa %14 hazi da, Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa bezalaxe.

Gaur egun, Toloserriko Eskualde Egiturak 150 industria-enpleguko defizita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indize orokorra hektareako 45 enplegukoa da.

Datu orokor hauek, alabaina, bi egoera oso desberdin ezkututzen dituzte eskualdearen barruan. Iparraldeak (Adunako ibarra, Zizurkil, Asteasu, Billabona, Irura) nolabaiteko industria-garapena izan du, Donostialdetik hurbil egoteak eraginda, baina hegoaldean (Tolosa, Ibarra) industria-gainbehera handiko panorama antzeman daiteke, papergintza-sektorearen krisialdiaren ondorioz.

Apattako poligonoa salbuetsita, Toloserriko Eskualde Egituran jarduera ekonomikoetarako lurzoru kalifikatu eta librearen erreserbarik ia ez dagoela esan daiteke, lurraldean zehar sakabanatuta dauden eta hirigintza-kudeaketako arazo handiak dituzten hondar-eremu txikiei baitagozkie.

Eskualde-egitura osorako sustapen aktiboko politika gauzatuko da Tolosako erakargunearen inguruan, ekimen publikoko eskualde-poligonoa sortuz Apattan, Ibarra, Leaburu eta Tolosako udalerrien elkargunean.

Neurri osagarri gisa, Adunako ibarreko zona estrategikoa garatuko da. Gune honetan industrialde bat ezar daiteke Andoain-Billabonako eragin-eremuan eta garraioaren zerbitzurako poligono bat antolatu N-1 errepideari eta Nafarroako autobiarri zuzenean lotuta.

Epe ertainean, etorkizunean eskualdean jarduera ekonomikorako lurzoru berriak garatzeko alternatibak aztertuko dira.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Billabona, Zizurkilgo udalerriek eta Andoaingo udal-mugapeko Balastrain-Matxinea poligonoak osatzen duten Toloserriko Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratu da.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Toloserriko Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Aduna, Alegia, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Tolosa, Billabona, Zizurkil
- Hazkunde moteleko udalerriak
Altzo, Amezketeta, Belauntza, Lizartza
- Garapen txikiko udalerriak
Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Orendain, Oresa

d) Sustapen-eremuak

Toloserriko Eskualde Egituran landaguneetako industria-jarduerarako proposatutako sustapen-eremuak:

- Tolosa-Ibarra ingurua

e) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Toloserriko Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- Apattako eskualde-mailako poligonoa.
Ibarra, Leaburu eta Tolosan aurreikusitako poligonoa garatzea.
- Adunako ibarreko eskualdeko poligono berria.
Adunako ibarreko lurzoru libreak garatzea, 15/25 ha.
- Tolosaldeko eskualde-mailako Industrialde berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 15/25 ha.

f) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera189 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren guztizko eskaintzaren gainean 0,50eko minorazio-faktorea aplikatzen da 55 ha
- C Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.....30/45 ha
- D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera35/70 ha
- Toloserriko EEren kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)..... 310/350 ha

g) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Toloserriko Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)
Aduna, Anoeta, Ibarra, Irura, Tolosa eta Billabona.
- Gainerako udalerriak (C kategoria)

Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ikaztegieta, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa eta Zizurkil.

29. artikulua.- Urola-Kostako Eskualde Egitura

a) Antolamendu-irizpideak

Azken hamarkadan Urola-Kostako Eskualde Egiturako biztanleria osoa %5,2 hazi da, 6,5 portzentaje-puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik, eta biztanleria aktiboa %36 hazi da, 28 portzentaje-puntu Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren gainetik. Industria-lurzoru okupatuaren dentsifikazioaren indize orokorra hektareako 40 enplegukoa da. Hiri-plangintzan jarduera ekonomikoetarako kalifikazioa duten lurzoru libreak badirela egiaztatzen den arren, hirigintza-kudeaketako arazoak, urbanizatzeko baldintza txarrak eta lurzoruaren prezio garestia direla medio, lurzoru erabilgarriaren eskaintza urria da benetan.

Gaur egun, Urola-Kostako Eskualde Egiturak 500 industria-enpleguko superabita du bigarren sektorean lanean ari den biztanleriarekiko. Defizit hau oso-osorik kokatzen da eskualde-egituraren ekialdeko muturrean (Zarautz, Orio), Urola ibaiaren arroak eta, batez ere Urola erdialdekoak (Azpeitia, Azkoitia), industria-enpleguen superabit adierazgarriak dituzte-eta.

Urola-Kostako Eskualde Egitura oso zatikatuta dagoen eta kohesio txikia duen esparru geografiko bati dagokio; berezko maila eta espezifikotasuna duten hainbat hirigune daude Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, eskualde-egitura udalaz gaindiko logika batean txertatzea eragozten dutenak.

Testuinguru honetan, Zarautz eta Azkoitiko udalerrietan garatu diren toki-mailako ekimen publikoak eta orain Azpeitian gauzatzen ari den ekimen txikiagoa eta udal-ekimenez garatu diren poligonoez gain, administrazio publikoa, Sprilur aitzindari dela, Sansinenea poligonoaren sustapena garatzen ari da Arroa-Zestoa, eskualde-mailako lurzoru-zuzkidura estrategiko gisa.

Eskualde-egituran jarduera ekonomikoetarako lurzoru antolatzeke jarraibide orokor gisa, Sansinenea poligonoa sortuko da eskualde-egitura osorako eskala orokorreko lurzoru-zuzkidura gisa; horren osagarri gisa, biztanlegune nagusietan eskala txikiagoko poligonoak sustatuko dira: Zarautzen, Orio-Aia-Zarautz-Getaria eremurako, eta Azpeitian, Azpeitia-Azkoitia-Errezil-Beizama eremurako.

Horrez gain, Sansinenea poligonoari enpresa handi bat ezartzeko aukera moduko erreserbako lursail handi gisa esleitutako hirigintza-bokazioa berriro aztertuko da. Lurraldearen Arloko Planaren ikuspegi integratutik, estrategia hau ez da egokientzat jotzen ez Urola-Kostako Eskualde Egiturarako, ez Gipuzkoako lurralde historikorako, egun dauden espazio-erabilgarritasunak kontuan izanik balio ikaragarria duten lurzoru-baliabideak geldiaraztera behartzen baitu; gainera, lurzoru-baliabide hauek epe laburrera zona honetan industria-ehun dibertsifikatuagoa eta balio erantsi handiagokoa hartzera zuzen litezke. Komenigarriagoa dirudi epe ertain-luzerako erreserba estrategiko moduko zuzkidura espazio-erabilgarritasun handiagoa duen eta inbertsio hipotetiko honek sor dezakeen efektu "eragilea" balia dezakeen Euskal Autonomia Erkidegoko beste esparru batera desbideratzea.

Planteamendu alternatibo gisa, erreserba garrantzitsu honen zati bat Zumaia-Aizarnazabal-Zestoa eremuaren zerbitzurako Industrialde bat sortzeko erabiliko da, gainerako lursailak eskualde-mailako industria-poligono gisa erreserbatuz.

Zuzkidura osagarri gisa, eskualde-egituran, erabaki beharreko kokaleku batean, garraiorako zerbitzu-plataforma bat sortuko da, bide-sare orokorretik irisgarritasun egokia izango duena.

Epe ertain-laburrera, Iraetako meandroaren esparruak duen ahalmena aztertuko da, jarduera ekonomikoak ezartzeko etorkizuneko harreragune gisa.

b) Lurzoruaren kudeaketaren lurralde-egituraketa

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia udalerriek osatzen duten Urola-Kostako Eskualde Egitura jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kudeaketa integraturako eskualde-unitate gisa konfiguratzeko da.

c) Lehentasunezko kokapenerako jarraibideak

5.4.1. epigrafearen irizpideei jarraituz, Urola-Kostako Eskualde Egiturako udalerriak ondoko kategorietan sailkatzen dira:

- Lehentasunezko intereseko udalerriak
Azkoitia, Azpeitia, Zarautz, Zestoa, Zumaia
- Hazkunde moteleko udalerriak
Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio
- Garapen txikiko udalerriak
Beizama, Errezil

d) Lurzoru publikoa sortzeko eragiketak

Urola-Kostako Eskualde Egituran, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko ondoko eragiketak gauzatuko dira:

- Arroa Behekoko eskualde-mailako poligonoa.
Sansinenea-Errekan aurreikusten den poligonoa garatzea. Zestoa.
- Zarautz inguruko eskualde-mailako Industrialde berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. Aia, Getaria, Orio eta Zarautz. 15/25 ha.
- Urola ertaineko eskualde-mailako Industrialde berria.
Alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. Azkoitia eta Azpeitia.
15/25 ha.
- Urolako garraiorako zerbitzu-zentroa.
Errepide-sare nagusiari lotutako eremu logistikorako alternatibak kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlanak. 5/15 ha.

e) Lurzorua kuantifikatzeko jarraibideak

- A Jarduera ekonomikoetarako uneko instalazioek okupatutako lurzoruen azalera324 ha
- B. Kalifikatutako eta eskaintza bideragarritzat hartutako lurzoru libreen azalera. Lurzoru libre kalifikatuaren gainean 0,75eko minorazio-faktorea aplikatzen da.....120 ha
- C Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira.....30/45 ha
- D Planaren horizontean aurreikus daitekeen eskariari erantzuteko beharrezko lurzoru berrien azalera35/70 ha
- Urola-Kostako EEren kuantifikazio orokorra (A+B+C+D)..... 500/540 ha

f) Saltoki handien arautzea

7.2. epigrafearen argudioaren arabera, Urola-Kostako Eskualde Egiturako udalerriak honela sailkatzen dira:

- Eskualde-zentraltasuneko udalerriak (B kategoria)
Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.
- Gainerako udalerriak (C kategoria)
Aia, Beizama, Errezil, Getaria eta Orio.

V. KAPITULUA.- XEDAPENAK

Xedapen gehigarri bakarra

Garraioaren jardura logistikoarekin zerikusia duten Lurraldearen Arloko Plan honen zehaztapenek ez dute inolako lotespenik eta orientagarriak besterik ez dira. Izan ere, Garraioaren Sare Modalitate arteko eta Logistikoaren Lurraldearen Arloko Planak aztertu eta arautuko ditu zehaztapen horiek.

Ildo horretatik, ondorengo eduki hauek orientagarriak izango dira:

II. kapitulua.- Jarduera ekonomikoetarako lurzorua arautzea

12. artikulua.- "Garraio-zerbitzuen plataforma-sarea" atala

IV. kapitulua.- Araudi zehaztua. Eskualde-egituren arabera zehaztutako proposamenen laburpena

15. artikulua.- Arabako Errioxako Eskualde Egitura

e) Lurzoruaren sorkuntza publikorako eragiketak.

- Jundizko Plataforma Logistikoa eta Modalitate artekoa.
- Jundizko Merkantzien Garraio eta Banaketa Jardueretarako Poligonoa.
- Araba Hegoaldeko zentro logistikoa.

19. artikulua.- Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egitura

e) Lurzoruaren sorkuntza publikorako eragiketak.

- Kanpoko Portuko Merkantzien Garraio eta Banaketarako Plataforma Logistikoak eta Modalitate artekoak eta Poligonoak.
- Serantesko Zentro Logistikoa.
- Trapagarango Merkantzien Garraio eta Banaketa Jardueretarako Poligonoa.
- Txorierriko Korridoreko Merkantzien Garraio eta Banaketa Jardueretarako Poligono Berria.

20. artikulua.- Durangaldeko Eskualde Egitura

d) Lurzoruaren sorkuntza publikorako eragiketak.

- Durangoko Merkantzien Garraio eta Banaketa Jardueretarako Poligono Berria.

24. artikulua.- Debarreneko Eskualde Egitura

d) Lurzoruaren sorkuntza publikorako eragiketak.

- Zaldunbideko Garraioaren Zerbitzu Zentroa.

26. artikulua.- Donostia Beterriko Eskualde Egitura

e) Lurzoruaren sorkuntza publikorako eragiketak.

- Irungo Modalitate arteko Plataforma Logistikoak.
- Irungo Merkantzien Garraio eta Banaketa Jardueretarako Poligonoak.
- Durangoko Merkantzien Garraio eta Banaketa Jardueretarako Poligono
- Pasaiaiko Portua – Gaintxurizketa Korridoreko Merkantzien Garraio eta Banaketa Jardueretarako Poligonoak.
- Zubieta-Oriako Garraioaren Zerbitzu Zentroa.

27. artikulua. Goierriko Eskualde Egitura

d) Lurzoruaren sorkuntza publikorako eragiketak.

- Beasain – Zumarraga Korridoreko Eskualde Eskalako Poligono Berria.

29. artikulua.- Urola-Kostako Eskualde Egitura

d) Lurzoruaren sorkuntza publikorako eragiketak.

- Urolako Garraioaren Zerbitzu Zentroa.